




**Urrats musika-taldeko kideek dantza-plazetako taldeen egoeraz eta giroaz berba egin dute.** ▶15

**Juan Luis Mugertza idazleak eskola-jazarpena hartu du berbabide, errealitatean oinarritutako *Beldurraren askatasuna* istorioan.** ▶22



# hiruka

Uribe Kostako astekaria



**11. zenbakia**  
2017ko  
azaroaren 23tik  
azaroaren 29ra arte

## Azaroaren 25a, planto betiko

**Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako** Egunean askotariko ekimenak egingo dituzte herriz herri.



### «*Filma egitea oso gogorra izan da niretzat*»

**Karra Elejalde Garai** aktore gasteiztar ezagunak *La higuera de los bastardos* filma azaldu du, baita grabatze-lanak zelakoak izan ziren ere, Ane Murugarrenen zuzendari nafarraren aginduetara.

Ramiro Pinilla idazle getxoztarren *La higuera* liburuan oinarrituta dago Murugarrenen pelikula; Getxo udalerriko hainbat lekutan filmatu zuten iaz. Aurretiko estrei-

naldia joan den eguaztenean egin zuten, Begoñako galerietan. Barriku honetan, ostera, denentzako estreinaldia izango da, Getxoko kirol-portuko zineetan. ▶16-17

HERRIZ HERRI BERANGO

### **Berango, 75 urtean dantzan** ▶8



**Berangon eta Barrikan** ekitaldiak antolatuko dituzte asteon, Euskararen Eguna hurreratzen dabilela eta. ▶8/10

**Barrikan eta Sopelan** Ander Deuna Eguna ospatuko dute azaroaren 30ean; hainbat ekitaldi egingo dira. ▶7/10

**Lemoizko zentral nuklearra** zaharbertzako askotariko proposamenak egin dituzte zenbait alderdik eta sindikatuk. ▶10

**Getxoko Manga Jaialdia** egingo dute aste-akabuan, azaroaren 25ean eta 26an, Areetako Xake plazan ipinitako karpan. ▶11

# Getxoko langabeak kontratatatu ahal izateko laguntzak, prest

**Udalak udalerriko 16** langabe zuzenean kontratatzeko deialdia zabaldu du. Gainera, bertoko enpresentzako kontratazio-laguntzak emango ditu. Eskaerak abendutik aurrera egin ahal izango dira.

**G**etxoko Udalak 416.648 euroko diru-laguntza jaso du Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuti-  
lekuko jardueretarako eta 2017ko ekitaldiko diru-laguntza deialdian dago sartuta. Bi eginkizunetarako erabiliko da diru hori: alde batetik, enplegua sustatzeko, horretarako, Getxoko 16 langabe zuzenean kontratatuko dira (186.837,77 euro); bestetik, bertoko enpresentzako kontratazio-laguntzak emango dira (229.810,80 euro). Diru-laguntza horri esker 65 pertsona kontratatzea aurreikusten da. Ignacio Uriarte Ekonomia Sustapenerako zinegotziak adierazi duenez, «enplegua sustatzera bideratutako diru-laguntzaren helburua lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak bultzatzea da, aldi baterako lan esperientzia ba-

ten bidez, beraien prestakuntza, gaitasun pertsonalak eta motibazioa indartzeko». Hala, Getxoko 16 langabe kontratatuko dira hamar udal-proiektu garatzeko. Gutxienez, sei emakume langabe, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten bost pertsona eta 55 urtetik gorako pertsona bi kontratatuko dira. Kontratazio horietarako denetarako hautagaien aukeraketa egingo da Euskal Enplegu Zerbitzuan erregistratutako eskaintzaren bidez, azaroaren 21etik aurrera. Horrenbestez, ezinbesteko baldintza izango da pertsona interesdunak langabeak izatea eta Lanbiden izena emanda egotea.

Bestalde, Getxoko Udalak diru-laguntzak emango dizkie lekuko enpresei, langabeentzako hiru eta sei hilabeteren arteko kontratuak egin ditzaten.



Askotariko profilak dituzten lanbako bila dabil Getxoko Udala.

Kontratu horiek 2017ko uztailaren 28tik aurrera hasitakoak eta abenduaren 31ra bitartekoak izan beharko dute nahitaez. Hiru hilabeteko lanaldi osoko lanpostu bakoitzagatik 3.000 euroko laguntza emango da gehienez, eta sei hilabeteko edo gehiagoko lanpostu ba-

koitzagatik 6.000 euro. Edozein kasutan enpresak izango dira langabetuak aukeratu dituztenak. Deialdia abenduaren hasieran BAOn argitaratzea aurreikusi da eta egun horretatik aurrera aurkeztu ahal izango dira eskaerak. ◀

info+: [www.hiruka.eus/getxo](http://www.hiruka.eus/getxo)

**Alortako Dendak**

**BARIKU BELTZA  
BLACK FRIDAY**

**AZAROAK 24 -25 NOVIEMBRE**

**SUPER DESKONTUAK  
PRECIOS**

**Getxo**

**BAPIRUKE**  
**Gabonetako koloniak**

**EGUNAK:**  
Abenduak 26, 27, 28 eta 29 & urtarrilak 2,3,4 eta 5.

**NORI ZUZENDUA:**  
5-12 urte bitarteko umeentzat

**ORDUTEGIA:**  
9:00etatik 13:30era. Irteera egunetan (28an eta 4an) 17:00ak arte.

**NON:**  
J.B. Zabala (Algorta) eta Romoko eskoletan

**PREZIOA:**  
Bazkideek 45 euro  
Bazkide ez direnek 60 euro  
Getxon gubieneko errenta jasotzen dutenek 20 euro  
(Aldundiako ziurtagiria + NANaren fotokopia)

**IZENA EMATE EPEA:**  
Bazkideek azaroak 27 + 28; bazkide ez direnak azaroak 29 + 30.  
Egunero 10:00 - 13:30; 27an eta 29an 16:30 - 18:00.

**Informazio gehiago:**  
también en castellano

**www.bizarralepoan.eus**  
**info@bizarralepoan.eus**  
**94.491.03.87**  
**Martikoena 16, 2 - 4 (Algorta)**

## Getxo



Erasotzaile matxisten kontrako agerraldia egingo dute domekan, Algortako San Nikolas plazan.

# Indarkeria matxistaren aurkako astea, martxan

**Emakumeenganako indarkeria salatze**ko hamaika ekitaldi egongo dira egunotan udalerrian, barbarako zinema-proiektzioak, elkarretaratzeak eta antzezlanak.

**E**makumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a; horren harira hainbat jarduera antolatuko dituzte egunotan Getxoko Udalak eta udalerriko eragile feministek. Gainera, balioen aldatetaren aldeko hiru minutuko sentsibilizazio-bideo bat zabaltzen ari da Udala, «emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta indarkeriarik gabeko bizitza sustatzeko». Bideoa Algortako eta Areetako metro geltokien ondoan totem banatan ikusi ahal izango da, hilaren 27ra arte. Modu berean, «Emakumeenganako indarkeriari ez» mezua duten pankartak, kartelak eta

biniloak egongo dira banatuta udalerriko hainbat lekutan. Modu berean, indarkeria matxistaren kontrako jarriera agertzeko, Fadura GLHBI institutuko ikasleek ekimen berezia egingo dute ikastetxean goizeko 10:50ean. Arrastian, 19:30ean, Gizatiar emakumeen elkarretaratzea egingo du, Bizkaia Zubia plazan dagoen puntu lilan. Bestalde, Itzubaltzeta/Romoko Itzubaltzeta Emakumeon Asanbladak manifestazioa antolatu du, zapatuan, hilaren 25ean, 13:00etan, Santa Eugenia plazatik abiatuta. Ostera, Algortako mugimendu feministak elkarretaratzea egingo du Telletxe plazan, 19:30etik aurrera. ◀

## Azaroak 24, barikua

**10:50** Ekimena Algortako Fadura institutuan.  
**19:30** Kontzentrazioa, Bizkaia Zubia plazan.

## Azaroak 25, zapatua

**13:00** Manifestazioa, Santa Eugenia plazatik abiatuta.  
**19:30** Elkarretaratzea Telletxe plazan.

## Azaroak 26, domeka

**18:00** *Volar* pelikularen proiektzioa, Andres Isasi musika-eskolan; sarrera doan.  
**13:00** «Txikitxu, sinesten dizugu! Erasotzaileak kanpora!» agerraldia San Nikolas plazan.

## Abenduak 1, barikua

**18:00** *Sex o no sex* antzezlan, Andres Isasi musika-eskolan. Sarrera 5 euroan.

## Ereagan dagoen igogailuaren ordutegia luzatu dute

**E**reagako igogailuak ordutegi berria du. Hala, domekatik eguenera, 09:00etatik 23:00etara erabili ahal izango da; ostera, barikuetan, zapatuetan eta jaiegunen bezperetan 09:00etatik 00:30era. San Inazioko eta Portu Zaharreko jaietan ere azkenengo ordutegi hori izango du azpiegiturak. Aldiz, abenduaren 24an eta 31n 9:00etatik 18:00etara erabili ahal izango da; abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean 10:00etatik 21:00etara. Ordutegi berriari esker, ekipamendu hori gehiago erabili ahal izango da neguko hilabeteetan (hilabete horietan 20:00etan ixten zen orain arte). Hiru denboraldi zeuden, hiru ordutegigaz (Gabonetan salbuespenak zeuden), eta orain bi egongo dira, bateratzeko helburuz. Urteko lehenengo 10 hilabeteetan, igogailua 300.000 pertsona inguruk erabili dute; orokorrean, udaberrian eta udan erabili da gehien azpiegitura hori. ◀

## Areeta geltokian «Las Arenas» ere ipintzea gura du PPK

**G**etxoko PPrentz iritiz, Areetako metro-geltokiak gaztelaniazko izena ere hartu beharko luke: «Las Arenas»; hau da, geralekuak bi hizkuntzataraz egokituta egon beharko luke, «Gurutza/Cruces edo Zazpi Kaleak/Casco Viejo geltokietan egin den bezala». Diotenez, hizkuntza bietan agertzea «beharrezkoa» da «ulergarria» izateko. «EUSTATEN arabera, Getxoko auzokideen %27,75 baino ez da euskalduna. Hala, uste dugu geltokiaren izena gaztelaniaz ere egon beharko litzatekeela, denek uler dezaten», azaldu dute. Eduardo Andrade bozeramaile popularrak adierazi du «gehienek» Las Arenas izenagaz ezagutzen dutela auzoa. ◀



## BERANGO, 75 URTEZ DANTZAN

BERANGOKO DANTZA TALDEKIDE  
IZANDAKOEI DEIALDIA

2018ko uztailean egingo diren  
**EKITALDIEN AURKEZPENA**

Azaroaren 25ean. 20:00etan.  
Berangoko Frontoian

Zure parte-hartzearekin, zu bertan izanda eta zure ekimenari esker urteurren hau ospatu ahal izango dugu... **Zeu ere ospakizun ekitaldion parte izatea nahi dugu !!!**

CONVOCATORIA A EX-MIEMBROS  
DEL GRUPO DE DANZAS DE BERANGO

**PRESENTACIÓN DE ACTOS**  
a celebrar en julio de 2018

Día 25 noviembre, sábado a las 20:00 horas  
en el Frontón Municipal de Berango

Tu pertenencia, presencia y actividad, han hecho que podamos celebrar esta efeméride...  
**¡¡¡Queremos que seas participe de esta celebración!!!**

BERANGOKO



DANTZA TALDEA

Getxo

# Publiko berri bila dabilta

**Kultura jende «berriarengana»** hurreratzeko saio bereziak eskainiko ditu Andres Isasi Musika Eskolak.



Askotariko jarduerak egingo dituzte zeregin horretarako.

## Itzubaltzeta gaztetxeko hitzarmena sinatzear dago

Itzubaltzeta/Romoko Errekaganeko lurzorua eta pabiloien etorkizuna arautuko da eta horren hitzarmena sinatzeko atarian daude IGAKE Itzubaltzetako Gazteriaren Aisialdi eta Kultur Elkarte eta Getxoko Udala. Lehenengok azaldu dutenez, gaztetxea berreskuratzeko proiektuak autogestio-izaera izango du ardatz. Hala ere, iragarri dutenez, akordioak askotariko zehaztapenak barnebilduko ditu: funtzionamendua, alde bien arteko komunikazioa, elkarlana eta auzokideak bizikidetzarako markoa, eta ekintzen ordutegi dagokion besteak beste. Modu berean, gaztetxea hartuko duen eraikin berriaren eraikuntzarako proiektu berria definituko dute laster.



Joan den apirilean erre ziren pabiloia.

IGAKEK iragarri du Itzubaltzeta gaztetxeak balioei eta ekinbide orokorrari dagokienez «berdin» funtzionatuko duela, «gazteen ahalduntzea sustatu eta alternatiba errealean eraikuntzan lanean» jarraituko dute.

Andres Isasi Musika Eskolak askotariko jarduerak izango ditu bere egitarau berrian. Orain arte eskaini izan dituen kontzertuez gainera, beste hainbat jarduerara garatuko ditu. Horren helburua publiko berria bereganatzea da. Hala, 3 eta 10 urte arteko neska-mutilentzako topagune musikalak egingo dituzte Musika Eskolako liburutegian. Gainera, Areto nagusian kontzertu didaktikoak egingo dituzte, baita musika eta antzerki saioak ere, berdintasunerako heziketa oinarri hartuta; horren lehengo saioa hilaren 29an izango da. Areto nagusian, Impromptu bikoteak beste saio bat eskainiko du, 2018ko urtarrilaren 17an, *Schubert eta liederrak*, Ana Begoña Hernandez sopranoaren eskutik. Horretaz gainera, Jose Maria Bretos Linaza Musikene-ko irakaslearen berbaldi didaktikoak bueltatuko dira ikasturtera.

## Pintxo gozoz goza daiteke oraindino aste-akabuan, Getxon

Udalerriko 55 establezimenduk GetxOnegin lehiaketarako berenberegiz prestatutako pintxoak dastatu ahal izango dira egunotan, zapatuan eta domekan, hain zuzen ere. Joan den aste-akabuan eman zioten hasiera ibilbide gastronomiko horri, eta horretaz gozatzeko aukera izan zuten ehunaka gizon-emakumek. Pintxo bakoitza 1 euroko prezioan hartu ahal izango da. Gainera, kalez kale eta tabernaz taberna giro euskalduna areagotzen laguntzeko, hainbat talde ibiliko dira, berbarako Argia Kantari Kanta, Itxarkatu eta Musikalia. Modu berean, antolatzaileek Spotifyko musika-zerrenda bana eman diete ostalariei.

info+: [www.hiruka.eus/getxo](http://www.hiruka.eus/getxo)



Herriko saltsan

IBON RODRIGUEZ LARRINAGA  
EH Bildu

## Tosuko gatazkan, betikoak betiko dabilta

Ez da lehen aldia EAJren aldetik argudio (aitzaki) bera entzuten dugula: betikoak. Betikoak, Euskal herrian oso ezagunak ditugun hitz komodinak, zer esanik ez dagoenean erabiltzen direnak, beste era batera pentsatzen duena agerian uzteko eta eztabaida murrizteko. Ez dakit nik Tosun ari direnak betikoak diren ala ez, denetarik egongo delakoan nago. Baina jakin dakidana da EAJ beti bezala ari dela: demagogia lantzen. Hauteskunde programan zeramata diote eta beraz, eta Landaberrin irakurri ahal izan dugun bezala, hauteskundeetan babesa eman zieten guztiek Ibarbengoako parkingari babesa eman zioten. Irakurketa, maltzurra, motz eta gezurtia. Seguru nago badaudela EAJren boto-emaille batzuk parkingaren aldekoak direnak, eta beste batzuk kontrakoak, baina seguru nago ere, ez zutela, gehienek behintzat, euren bozka parkingaren arabera erabaki. Eta hain seguru badaude... zergatik ez galdetu? Bozkatzen ikusi dugu Alkatea; Erabakitze Eskubidea gauzatzeko ahalegin guztiak ongi etorriak izan behar dira, baina erabakitze eskubidea ezin zaio aitortu katalanei edo Euskal Herriari eta ukatu Andra Mariko auzokideei edota Romoko auzotarreri. Badago akatsa begi bistan izan arren bere horretan mantentzen dena. Pentsa dezagun helburua metro maiztasun gutxiago duten herritarrak metrora hurbiltzea bada... Zergatik ez egin parkinga... adibidez... Urdulizen... Plentzia hurbilago dago, eta Sopela, eta Lemoiz. Eta gainera Urdulizen ospitalea dago, eta ospitalerako... parking faltan daude. Edota proposatu genuen bezala, zergatik ez metroaren maiztasuna areagotu? Zergatik ez garraio publikoa sustatu? Ez da izango betikoan helburua ezkutuan dagoela? Ez da izango betikoak beti bezala ari direla?

**San Nikolas**  
IKASTOLA

San Nikolaren denok gara gu!!!

Hezkuntza integrala      Demokratikoa  
Euskalduna              Autonomoa  
Plurala                      Hezkuntza eta kudeaketa ereduak

Arene azpi, 15 • 48991 Algorta - Getxo  
Tel: 944 305 478 • [ikastola@sanikolas.com](mailto:ikastola@sanikolas.com) • [www.sanikolas.eus](http://www.sanikolas.eus)

**TAP**  
TABERNA

Santa Eugenia Kalea 13  
ERROMO

Egin zaitez  
hirukalagun!

Urtean  
**35€**  
baino ez

Trukean:  
zozketak,  
sariak ia astero,  
astekaria eguazteno...

## Erandoio

## Afari flamenkoa antolatu du Lutzana Existe elkarteak

Datorren abenduaren 1ean, barikuan, afari flamenkoa izango da Bilboko Zorrotzaurre auzoko Pabellon 6 aretoan. Afari berezi hori Erandioko Lutzana auzoko Lutzana Existe elkarteak antolatu du, Udalaren laguntzagaz. Kolektiboak azaldu duenez, flamenkoaz gozatu, afari izugarria dastatu eta «gau ahaztezina pasatu gura» duenak zalantzak alde batera utzi eta izena eman beharko du. Horretarako, izena eta telefono-zenbakia bidali behar zaizkio antolakuntzari datorren barikua, azaroaren 24a, baino lehen. Prezioa 15 eurokoa da. ◀

izen-ematea: [lutzanaexiste@hotmail.com](mailto:lutzanaexiste@hotmail.com)

## Abaroak kaltetutako etxeak aztertzen dabilta bota aurretik

Azpiegitura SA foru-enpresako teknikariak aztertzen dabilta Altzagako etxalde bi, bertako etxebizitza-erakin bi botatzeak ondoko etxeetan eragin ditzakeen kalteak aurrekusi eta gutxitzeko. Bota beharreko eraikinak dira Abaroa enpresak 2007an egoera arriskutsuan utzi zituen etxeak: Anton Fernández kalea, 1; Altzagako Ibarra, 7 eta 9; Ibarrodo, 1; eta San Agustin, 4. Denera, 66 etxebizitza eta 10 lonja eraitsiko dituzte, ondoren leku berean 113 etxebizitza eta 10 lonja eraikitzeko. Construcciones Murias SA enpresak egingo ditu eraipen- eta eraikitze-lanak. Botatze-lanak datorren urtean abiaraziko dituzte. ◀

## Berbalagunek txangoa egingo dute Pagasarrira

Zapatu honetan, azaroaren 25ean, Zmendira aterako dira Erandioko berbalagunak. Udazkena dela baliatuta, Pagasarrira igotzeko plana presatatu dute, Berbots euskaltzaleen topaguneagaz batera. Hala, zapatuan, Astrabuduko anbulatorioetik irtengo dira, goizeko 08:30ean, Pagasarrira autoz hurreratzeko. Txangoa lasaitasunez eginez gero, aterpera 10:30ak edo 11:00ak aldera helduko dira, bertan haiketakoaz gozatu ahal izateko. Izena emateko nahikoa da whatsapp-mezu bat bidaltzea edo posta elektronikoren bat idaztea Berbalagun ekimenari. Erandioko Berbalagun taldeetan ere izena eman daiteke edozein momentuan nahi izanez gero. ◀

info+: 667 995 716 / [berbalagunerandio@gmail.com](mailto:berbalagunerandio@gmail.com)

# Matxismoak hildako emakumeak gogoraraziko dituzte barikuan

**Erandioko emakume-taldeek** eta Udalak hainbat jarduera antolatu dituzte batera, bortxakeria matxista salatzen.

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna izango da datorren zapatuan, azaroaren 25ean. Hori dela eta, Erandioko, Astrabuduko eta Erandiogoikoko Damatxo emakumeen-elkarteak eta Udalak Erandioko Berdintasun Kontseiluarekin jardun dute elkarlanean.

Hala, eguenean, hilaren 23an, Norma Vázquez psikologoak eguneroko biolentzien gainean berba egingo du Josu Murueta kultur etxeko areto urdinean, 19:00etan. Barikuan, azaroaren 24an, elkarretaratzea egingo dute udaletxearen aurrean, goizeko 12:00etan. Ostean, leku berean, Ategorri institutuko ikasleek flashmoba egingo dute. Hori bukatuta, kalejira egingo dute Tartanga kaleko Eskuen Lorategira, Euskal Herrian eta Espainian hil dituzten emakumeak oroitarazteko. Egun



Azaroaren 24an egingo dituzte ohiko elkarretaratzea eta kalejira.

horretan bertan, 18:00etan, «Antigua vida mía» filma proiektatuta, zine-foruma egongo da Erandioko Emakumeen Elkarteak Altzaga auzoan daukan lokalean.

Aste bat geroago, abenduaren 1ean, barikuan, Berdintasun Zerbi-

tzuak Erandioko III. Berdintasun Plana aurkeztuko du jendaurrean. Azkenik, abenduaren 16an, Lutzanako Arraun Elkarteak emakumeen arteko estropadak egingo ditu. Hala, klubeko kideak norgehiagoka arituko dira Bizkaiko konbinatu baten aurka. ◀

## Kiroldegietan eman bako zerbitzua ez du ordainduko Udalak

Erandioko Udalak ez dizkio ordainduko Bi Sport enpresari kiroldegietan zerbitzurik eskaintzen ez dituen egunak, Josean Pérez Kirol zinegotziak jakinarazi duenez. Izan ere, zapatu honetan, aste bi beteko dituzte greban Bi Sport enpresako langileek. Horren ordez, Altzagako eta Astrabuduko udal-kiroldegietako 27 beharginek hainbat kirol-saio, ume-jolas, elkarretaratze eta abar antolatu dituzte, lan-zentroetatik kanpo, euren aldarrikapenak ezagutarazteko. Berbarako eguen honetan kalejira egingo dute Astrabuduan, 19:00etan, Josu Murueta plaza-irtenda. Barikuan, ostera, Altzagan izango dira, nagusiak rock-saioa egiten, goizeko 11:00etan. Ondoren, 12:00etan, elkarretaratzea egingo dute udaletxearen aurrean; ordu berean, bortxakeria matxistaren aurkako elkarretaratzea ere izango da leku berean. Beharginek gogorazi dutenez, joan den otsailetik dabilta lan-hitzarmen propioa negoziatzeko ahaleginetan; kexu dira, «enpresak ez baitu inolako interesik ezta borondaterik ere». ◀

**Getxoko Manga Jaialdia**  
**Festival Manga de Getxo 2017**  
 Azaroak 25-26 Noviembre

**AREETAKO GELTOKIA PLAZA PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS (BIZKAIA)**

**ORDUTEGIA / HORARIO:**  
 11:00 - 14.30 • 17:00 - 21:00

**SARRERA/ENTRADA: 3€**

Getxo, Bizkaia, EL CORREO, metro bilbo, P.C. BOK, bbk



Begire nago begire

**JOSU  
ESNAOLA ARANGUREN**  
Helduen euskalduntzean  
irakasle

## Eskerrik asko egia gordin erakusteagatik

Igande arratsaldean, beste laun askok bezala, telebista aurrean eman nuen tarte handitxo bat. Kaiolako finala joan, bizkaitarra eta gipuzkoarra aurrez aurre. Ni Jokinen alde, ez gipuzkoarra delako, bere joko atseginagoa iruditzen zaidalako baino.

Atsedean hartzeko tarte horietako batean, nor bere botileroren aholkuak entzuten ari zenean, telebistako kamera Mikel eta Pablorengana hurreratu eta argi bezain garbi entzun ahal izan genuen zein hizkuntzatan ari ziren. Ez nik espero nuenean, alajaina.

Pablo eta Mikel eurenera zeuden, partidaren buru-belarri sartuta. Esan beharrekoak ahalik eta ondoen esatea zen kontua. Pilotaz ziharduten, jokatzeko ari ziren partidaz, gainontzekoak bigarren mailako txikikeriak ziren. Gaztelaniaz ziharduten.

Horrek hautsak harrotu zituen. Hangoak haserre agertu ziren, hemengoak penatuta, harrituta agertu zenik ere izan zen. Nola ote zitekeen biak euskaldunak, ustezko euskal hiztunak izanik gaztelaniaz aritzea?

Entzundakoak ni ere penatu ninduen, baita apur bat gehixeago lerratu Jokinen alde; baina, era berean, guztiz esanguratsua iruditu zitzaidan. Inkesta soziolinguistiko eta antzeko ez dakit zenbat ikerketek baino argiago erakutsi baitziguten zein den euskaldun askoren egunerokoa.

Hori hain gordin ikustea ez zaigu batere samurra, aldiz, horixe da daukaguna. Zenbat eta lehenago onartu, orduan eta aukera handiagoa, berandu izan aurretik, gogoetari ekin eta partida hau irabazteko nola jokatu behar dugun erabakitzeko.

Igandeko partida Jokinek irabazi zuen, beste partida hau ez dakit. Hala ere, eskerrik asko, Pablo eta Mikel, egia hain gordin erakusteagatik, eskerrik asko hain zintzo jokatzegatik. ◀

Leioa

# Gazteek sexu-erasoei ez!

**Emakumeenganako indarkeria salatuzko,** udalerriko ikastetxeetako neska-mutilak izango ditu bidelagun Udalak.

Azaroaren 25eko ekimenen artean, ohi den legez, Leioako hainbat ikastetxetako neska-mutilek ere salatu egingo dute emakumeenganako indarkeria; Udalaren Berdintasun Saila hezkuntza-zentroak elkarlanean dabil, hainbat ekintza aurrera eramateko. Berbarako, bariku honetan, azaroaren 24an, eurentzat beren beregi deitutako kale-agerraldian parte hartuko dute 500 ikaslek baino gehiagok. Elkarretaratzea 12:00etan izango da, Boulevarden.

Jarduerei jarraituz, udalerriko ikastetxe denetan egingo dute tapoi-batzea, 2018ko maiatzera arte; batutako tapoiak diruagaz trukatu dituzte. Horregaz batera, *Jaia geurea, gauean ere bai* goiburua erabiliz, kartel-lehiaketa antolatu dute; ikastetxe denetan egingo da eta kartel irabazlea 2018ko jaietan erabiliko da eraso se-



Aurten kontzentrazio bi egongo dira: bata, barikuan, ikasleek parte har dezaten; bestea, zapatuan.

xisten kontrako irudi legez. Modu berean, hezkuntza-zentro irabazleak tapoi-bilketan lortutako dirua jasoko du, Amaia Celis berdintasun-teknikariak azaldu duenez. Bestalde, Andrak emakumeen elkarteak Udalagaz batera egingo ditu ekitaldiak. Hala, gaur, egunean, azaroaren 23an, Emakundek ekoiztako *Volar* dokumentala ikusteko aukera egongo da, 19:00etan, Kultur Leioako entzungelan. Gonbidapenak Gizarte Zerbitzuen egoitzan jaso daitezke. Bestalde, zapatuan, azaroa-

ren 25ean, elkarretaratzea egingo dute, Boulevarden, 12:00etan. Ekimen berrii dagokionez, azaroaren 24ra arte, *Indarkeriaren kontrako alderantzizko graffitiak* ikusteko aukera egongo da; lekua eta orduak ez dituzte zehaztu oraindino. Azkenik, *Kutxa morea* postontzi birtuala zabaldu du Udalak, bere webgunean; leioaztarrek emakumeenganako indarkeriaren kontrako mezuak idatzi ahal izango dituzte bertara helarazteko. ◀

info+: [www.leioa.net](http://www.leioa.net)

## Heriotza-zigorra salatuko dute, Sakoneta kiroldedia argiztatuz

Azaroaren 30ean, Heriotza-zigorren kontrako Nazioarteko Egunean, giza eskubide horren urraketaren gaineko esaldi batez argiztatuko dute Sakoneta kiroldedia. Horregaz batera, Leioako umeek zein gazteek eta hainbat pertsona ezagunek utzitako mezuak proiektatu dituzte. Udal-agintariak eta Amnesty International elkarteak kideek

abiaraziko dute ekitaldia, 18:00etan; proiektzioa 22:00etara bitartean ikusi ahal izango da. Bitartean, 20:00etan, aipatutako gaiak diharduen *Difret* filma proiektatuko dute (jatorrizko bertsiotan, gaztelaniazko azpigituluakaz) Kultur Leioako entzungelan. Gonbidapenak Kultur Leioako txarteldegian hartu beharko dituzte ikusleek, proiektzioaren egunean bertan. ◀

## Aurrekontu Irekien prozesua zabalduko dute, azaroaren 27an

Azaroaren 27tik abenduaren 22ra arte, udal-aurrekontuen zirriborroan gehitu gura dituzten proposamenak aurkezteko aukera izango dute Leioan erroldatutako 16 urtetik gorako gazteek. Aurrekontu Irekien prozesuan parte-hartzeko, hainbat aukera eman go dute Udalak: lehenik eta behin, inprimakia bete beharko dute leioaztarrek; ondoren, herritarren arretarako bulegoetara eroan edo hainbat lekutan ipiniko dituzten postontzietan sartu beharko dute. Gainera, Internet bidez aurkezteko aukera ere egongo da, Gobernu Irekiaren Atarian. Proposamenak aurkezteko epea amaituta, horiek denak aztertuko dituela ziurtatu du Udalak: batetik, «alderdi teknikoari dagokionez, bideragarriak diren edo ez» begiratu dute. Bestalde, «aurrekontuetan gehitzeko modukoak» eta «interes orokorrekoak» izan beharko dute. Behin betiko proposamenen zerrenda herritarrei aurkeztuko zaie, botoa eman dezaten; emaitzak leioaztarrei jakinaraziko dizkiete. ◀

info+: [leioazabalik.leioa.net](http://leioazabalik.leioa.net)

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteak ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA  
94 464 23 64/94 464 33 07  
[info@betikoikastola.net](mailto:info@betikoikastola.net)  
[www.betikoikastola.net](http://www.betikoikastola.net)

Ikastolen Elkartea

## Sopela



Manifestua irakurriko dute eta puxikak askatuko dituzte, zapatuan, udaletxearen aurrean.

## Azaroaren 25ean, hamaika ekitaldi

**Itzartu emakumeen elkarteak** eta Udalak hainbat ekitaldi antolatu dituzte, emakumeenganako indarkeria salatzen.

Zapatuan, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna denez, hainbat jardura prestatu dituzte Sopelako Udalak eta Itzartu emakumeen elkarteak. Hala, bariku honetan, azaroaren 24an, Emakundek ekoiztutako *Volar* dokumentala proiektatuko dute, Kurtzio kultur etxean. Emanaldia 19:00etan izango da; sarrera, doan. Bertha Gaztelumendik zuzendutako pelikula indarkeria jasan duten bederatzita emakumeren testigantzak jasotzen ditu. Emakumearen Euskal Erakundeak erakunde eta entitate ezberdinen eskura ipini du pelikularen kopia, emanaldiak antola ditzaten.

Egitarragaz jarraituz, zapatuan, Beldur Barik sarien banaketa egingo dute, 17:00etan, Kurtzio kultur etxean; Uribe Kostako Mankomunitateko Berdintasun Sailak antolatu du. Egun berean, azaroaren 25eko manifestua irakurriko dute, udaletxean; horren ostean, puxika lilak eta zuriak askatuko dituzte. Hitzordua 19:00etan ipini dute. Bitartean, azarorako prestatutako ekitaldiak aurrera jarraituko du Itzartu emakumeen elkarteak. Hala, gaur, egunean, azaroaren 23an, *Las mujeres que hay en ti* berbaldia eman- go dute euren egoitzan, Landa Dokto- rearen kaleko 3. zenbakian. Saioa 18:00etan izango da, gaztelaniaz; sa-

### Egitarrua

#### Azaroak 23, eguna

**18:00** *Las mujeres que hay en ti* berbaldia Itzartu emakumeen elkartearen egoitzan. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

#### Azaroak 24, barikua

**19:00** *Volar* dokumentala, Kurtzio kultur etxean. Gaztelaniaz. Sarrera, doan. Itzartu emakumeen elkarteak antolatu du.

#### Azaroak 25, zapatua

**17:00** Beldur Barik sarien banaketa, Kurtzio kultur etxean. Uribe Kostako Mankomunitateko Berdintasun Sailak antolatu du.

**19:00** Manifestuaren irakurketa eta puxikak askatzea, udaletxean.

#### Azaroak 26, domeka

**19:00** *Arquetipos de mujer* antzezlan, Juana Lorregaz, Kurtzio kultur etxean. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

#### Azaroak 29, eguaztena

*Hábitos saludables para superar el estrés* tailerra. Informazioa: itzartu@hotmail.com

#### Azaroak 30, eguna

**18:00** *La habitación* filma, Kurtzio kultur etxean. Sarrera, doan. Itzartu emakumeen elkarteak antolatu du.

#### Abenduak 14, eguna

**18:00** *Nuestro último verano en Escocia* filma, Kurtzio kultur etxean. Sarrera, doan. Itzartu emakumeen elkarteak antolatu du.

rrera, doan. Azaroaren 29an, eguazte- nean, osteran, *Hábitos saludables para superar el estrés* tailerra egingo dute. Amaitzeko, Kurtzio Kultur Etxeak ere azaroaren 25eko ekitaldiak bat egin gura izan du: domeka honetan, azaroak 26, *Arquetipos de mujer* antzezla- na aurkeztuko du Juana Lor aktoreak; 19:00etan izango da, eta sarrerak 3 eu- roan egongo dira. ◀

## Kale-garbitzaile gutxi daudela salatu du Sopelako EH Bilduk

Udalerriko kaleetan garbiketala- nak egiteko, «gehienez, 8 langile» daudela salatu du Sopelako EH Bilduk. Ezkertiarrek diotenez, «herriaren egoera txarraz eta zikinkeriaz kezu» dira bizilagunak; hori dela eta, «ahalik eta lasterren» arazoari irten- bidea emateko eskatu diote EAJren eta PSE-EEren udal-gobernuari. «Auzokideen eta kale-garbitzaileen one- rako izango da», aipatu dute. EH Bil- duk azaldu duenez, 2016ko apirilaren 16an, Envisa enpresari eman zioten Sopelako kale-garbiketaren ardura; «baldintza-pleguetan 16 langile egon behar direla ipintzen du», diotenez. ◀

## Gabonetako pintura-lehiaketa martxan dago

Sopelako Udalak 5 eta 12 urte arteko Sneska-mutleiei zuzendutako pintu- ra-lehiaketa martxan ipini du, Olen- tzeroren Batzordearen bitartez. Parte hartu gura dutenek domeka (azaroak 26) baino lehen eroan beharko dituz- te euren lanak, Kurtzio kultur etxe- ra. *Olentzero eta Mari Domingi, Sope- lan* izango da aurtengo gai nagusia. Marrazki irabazlea Gabonetako pos- talaren irudi ofiziala izango da, eta Olentzero eta Mari Domingi Gaua ira- gartzeko erabiliko dute. Sari-banaketa abenduaren 24ko ospakizunean egin- go dute, herriko plazan. ◀

info+: [kultura@sopela.eus](mailto:kultura@sopela.eus) / 944 065 505



Aurreksua, hamaiketako eta erromeria egin baino lehen, meza egongo da. © SOPELAKO UDALA

## San Andres Eguna ospatuko dute, azaroaren 30ean

Azaroaren 30ean, egunean, San Andres Eguneko errome- ria egingo dute santu horren omenezko baselizan. Hala, 11:00etan kalejira antolatu dute udaletxetik ten- pluraino. Bertan, meza egongo da, 12:00etan; horren ostean, ohorezko aurreksua, hamaiketako herrikoia eta erromeria izango dira, 12:30ean. So-

pelbusek zerbitzu berezia izango du eta baselizara bidaiia egiteko ordu bi egongo dira: 11:00etan eta 11:30ean. Urbasa aurreko autobus-geltokitik ir- tango dira autobusak, eta geldialdi bi egingo dituzte: San Pedro elizan eta Larrabasterrako Zutari tabernaren aurrean. Bueltako bidaiak 13:30ean eta 14:00etan izango dira. ◀



Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28  
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunaikastola.eus

Berango

# Berango, 75 urte dantza egiten

**Simon Otxandategi Dantza** Taldearen urtemuga ospatzeko askotariko ekitaldiak egingo dituzte. Gainera, taldearen historia batzeko liburua kaleratuko dute.



Azaroaren 25ean egingo dute 75. urtemuga ospatzeko lehenengo ekitaldia. S. OTXANDATEGI TALDEA

**B**erangoko Simon Otxandategi Dantza Taldeak 75 urte beteko ditu 2018an. Hori dela eta, urtemuga hori ospatzeari ekingo dio laster. Lehenengo hitzordua azaroaren 25ean ipini dute; egun horretan urte luze horietan taldean parte hartu duten denei gorazarre egingo diete, Berangoko frontoian, 20:00etatik aurrera.

Datorren otsailaren 25ean taldearen sustapen-bideoklipa grabatuko dute. Horretan, gaur egun Udala osatzen duten zinegotziek parte hartuko dutela iragarri dute dantza-taldekoek; 75 urteotan Udalbatza osatu duten gainerako zinegotziak ere gonbidatuta egongo direla jakinarazi dute: «gure artean izatea gustatuko litzaziguke». Dena den, urtemuga berezi horren ospakizun gehienak 2018ko uztaileko lehenengo lau aste-akabuetan izango dira. Lehenengo hiru zapatuetan eta domeketan egingo diren

ekitaldiak Sabino Arana kalean izango direla iragarri dute antolatzaileek. Aldiz, azkenengo aste-akabukoak, Lantzarte auzoko landan ipiniko duten karpan egingo dituzte, Nazioarteko Jaialdiaren barruan. Aste-akabu bakoitza Otxandategi Taldea osatzen duten diziplina bakoitzari lotuta egongo da: dantzak, joaldunak, abestaldea eta txistulariak. Gainera, berangozarrakaz batera, nazioarteko askotariko taldeak ere laguntzera hurreratuko direla ohartarazi dute, «jai horrek behar duen garrantzia izan dezan».

## Urtemuga ospatzeko liburua

Den-dena dokumentatuta egon dadin, taldearen historia batuko duen liburua kaleratuko dute datorren urteko maiatzaren 6an. Liburuak, taldeko historia kontatzeaz gainera, askotariko argazkiak eta taldean parte hartu dutenen izen-zerrenda batuko ditu. ◀

## Euskararen aldeko astea abiaraziko dute astelehenean

**E**uskarari gorazarre egiteko dena prest dago Berangon. Izan ere, azaroaren 27tik abenduaren 3ra bitartean, adin denei begirako aste-beteko egitaraua prestatu du Udalak. Hilaren 27tik abenduaren 1era arteko jarduerak kultur etxean izango dira, 16:30etik 19:30era. Astelehenean, hilaren 27an, txantxangorria eta euskal dantzen tailerrak egingo dituzte; hurrengo egunean, hiru lerroan eta ipuin kontalaria egongo dira aukeran; hilaren 29an euskal imanak eta baserri-jolasak; hilaren 30ean zapiak eta txalparta-tailerra; eta abenduaren 1ean euskal jaia eta euskal karaokea. Ostera, abenduaren 2an *Akabuko martxea*



eta *Dominika* artzaintzaren gaineko dokumentalak proiektatuko dituzte, 19:00etan, Berango Antzokian. Hurrengo egunean, *Tomaxen abendurak* pailazo-ikusizuna egongo da Berango antzokian, 18:00etatik aurrera. ◀

## Negulekuetan izena emateko azken eguna da azaroaren 23a

**E**skualdeko beste hainbat herritan legez, Gabonetako negulekuetan parte hartzeko izen-emate epea zabalik dauka du Berangoko Udalak; azken eguna azaroaren 23a ipini dute, eguna. Izena eman gura dutenek kultur etxera joan beharko dute. Koloniak abenduaren 26tik 29ra artekoak izango dira, eta adin tarte biri zuzenduta egongo dira: 2012 eta 2014 urteen artean jaiotakoei eta 2006 eta 2008 artean jaiotakoei. Ekintza denak euskaraz izango dira, eta adin tarte bakoitzari egokituta egongo dira. Kolonien prezioa 30 eurokoa da udalerrian erroldatutakoentzat; gainerakoek 60 euro ordaindu beharko dituzte. ◀

## Cáritasi laguntzeko bigarren eskuko merkatua egingo dute

**D**atorren abenduaren 10ean bigarren eskuko merkatua egingo dute Berangoko Nagusien Etxearen ondoko plazatxoan, 11:00etatik 15:30era; eguraldi txarra egingez gero udal-frontoian egingo dute. Alde batetik, udalerriko emakume talde baten borondatez egindako artikulu berriak salduko dituzte horretan, baita dohaintzan emandako bigarren eskuko artikuluak ere. Horiekaz denekaz lortutako dirua Cáritas elkartearentzat izango da. Modu berean, gura duenak bere artikuluak saltzeko aukera ere izango du bertan. Horretarako, postu bat eskatu beharko da, hilaren 27tik 30era bitartean. ◀



## BERANGO, 75 URTEZ DANTZAN

BERANGOKO DANTZA TALDEKIDE  
IZANDAKOEI DEIALDIA

2018ko uztailean egingo diren  
EKITALDIEN AURKEZPENA

Azaroaren 25ean. 20:00etan.  
Berangoko Frontoian

Zure parte-hartzearekin, zu bertan izanda eta zure ekimenari esker urteurren hau ospatu ahal izango dugu... **Zeu ere ospakizun ekitaldion parte izatea nahi dugu !!!**

CONVOCATORIA A EX-MIEMBROS  
DEL GRUPO DE DANZAS DE BERANGO

PRESENTACIÓN DE ACTOS  
a celebrar en julio de 2018

Día 25 noviembre, sábado a las 20:00 horas  
en el Frontón Municipal de Berango

Tu pertenencia, presencia y actividad, han hecho que podamos celebrar esta efeméride...  
**¡¡¡Queremos que seas partícipe de esta celebración!!!**

BERANGOKO



DANTZA TALDEA



Plentzia eta Gorliz

# «Herri bietako giroa berreskuratu nahi dugu»

**Udalerrietako gazteen artean** mugimendua berpiztu guran, kuadrillen batzordea osatu gura du herri bietako gazte-asanbladak. Askotariko neska-mutilek parte hartzen dute horretan.



Gorlizko eta Plentziako hainbat adinetako askotariko gazteek osatzen dute gazte-asanblada. © GAZTE ASANBLADA.

IKER RINCON MORENO ▶

**G**orlizko eta Plentziako gazte mugimendua bizitu guran, gazte-asanblada berria osatu dute udalherri bietako hainbat gaztek. Joan den urriaren 29an bilera irekia egin zuten, ahalik eta gazte gehien batzeko asmoz. Apurka-apurka gero eta kuadrilla gehiago batzen hasi zaizkie mugimendu horretara; hala ere, oraindik, egiteko lan asko dutela argi dute gazteek.

**Zein da gaur egun Gorliz eta Plentziako gazte-mugimenduaren egoera?**

Orain arte nahiko ahula den arren, zer edo zer sortzen hasi dela nabari da. Herriko gazteak Euskal Herriko gazte-riaren problematikez kontzientziatzea beharrezkoa da, baina, hori lortzeko, bide luzea dugu oraindik. Dena den, gure herriarengan konfiantza handia dugu, eta lortuko dugula badakigu.

**Ezberdintasunik badago herri bateko zein besteko gazteen artean?**

Orokorrean, nahiko herri antzekoak dira. Azken finean, anai-arrebak bezalakoak dira; denok ezagutzen dugu elkar, kuadrillak herri biko gazteek osatuta daude, elkarrekin egon izan gara beti... Egia da Gorliz lan handia geratzen zaigula egiteko. Gazteek

Gorliz «helduen» herria izango balitz bezala ikusten dute. Kuadrillek Plentziako ekintzetan parte hartzen dute, eta ez Gorlizekoan; hori aldatu beharra dago.

**Hala, gabeziaren bat zegoelakoan gazte-talde bat batu eta gazte-asanblada osatu zenuten uda hasieran...**

Bai, Danontzat gaztetxearen berrantolaketa prozesua martxan ipintzean, herriko gaztearen problematikei irtenbide bat aurkitzearen eta herriko gazte mugimendua indartzearen, gazte-asanblada sortzeko beharra ikusi genuen. Gainera, gazteen ohiturak gero eta sedentarioagoak dira, eta horrek beharrezkoagoa egiten du gazte-asanblada baten presentzia.

**Zein motako gazteak batu zarete talde horretan?**

Askotariko taldea sortu dugu. Gure helburua hori zen, behintzat. Ideia eta pentsaera ezberdinak egotea, talde iraultzaile eta berritzaile bat osatzeko. Bestalde, gazte-asanblada barruan giro polita sortu da. Bileretan lan egiteaz aparte, ondo pasatzen dugu, motibazio handia daukagu eta horrek asko laguntzen gaitu. Gaur egun daukagun helburu nagusienetarikoa bat aisialdiaren eredu aldaketa izango litzateke, modu herrikoi batean gainera.

**Zer-zelakoa izan da gaur egunera arteko talde horren bilakaera?**

Aisialdi-eredua aldatzera begira, kuadrilla batzorde bat eratu dugu, kuadrillak batu guran. Horretan ibili gara eta oraindik jarraitzen dugu.

**Abuztuan egin zenuten Gazte Eguna inflexio puntu bat izan zen zuentzat. Zer dela eta?**

Gazte-asanbladak antolatutako lehenengo ekintza izan zelako. Egun horrekin bultzada eman nahi genien herriko gazteei asanbladara gehitzeko. Egun oso arrakastatsua izan zen, jendeak oso erantzun ona eman zuen eta guri indarra eman zigun herria berpizteko eta lanean jarraitzeko.

**Zein helburu bete gura dituzue?**

Helburu nagusia herri biak berpiztea dela esan dezakegu. Neguan herriak hilda daude, kuadrillak haien lonjetan sartzen dira eta giro bila joateko beste herri batzuetara mugitu behar izaten gara. Horri aurre egiteko, kuadrillen batzordea sortu nahi dugu.

**Zein ekimen mota prestatzeko asmoa duzue epe laburrean?**

Orain hurren daukagun ideia da kuadrillen eguna antolatzea. Data zehazteke dago, baina abenduan izango da. Egun osoan ekintzak egongo dira. ◀

**Euskararen aldeko herri-bazkarian izena eman daiteke**

**D**atorren abenduaren 3an, domekan, Euskararen Nazioarteko Eguna izango da. Gorliz euskarari gora-zarre egiteko herri-bazkaria antolatuko dute egun horretan. Parte hartu gura dutenek aurretik izena eman beharko dute, kultur etxean. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, bazkariko txartela 10 euroan erosi ahal izango da. Gainera, adierazi dute gutxienezko kopurura heldu ezean, bazkaria bertan behera gelditzeko aukera egongo litzatekeela. Hala, interesa dutenak ahalik eta ariren izena ematera dei egin dute. ◀

info+: euskeraz@uribekosta.org

**Rodriguezen Haragia nobela berbabide, azaroaren 29an**

**N**egua ate joka dago, eta horregaz nabera egun ilunak eta hotzak. Hori dela eta, etxeko epeltasuna aprobetxatuta, liburu on bat irakurtzeko aukera hartzen dute gizon-emakume askok. Plentzian eta Gorliz ere ohitura hori dute auzokide ugari; hala, irakurle euskaldun talde batek Irakurle Taldea osatu du, askotariko idazleak euren lanen gaineko berbaldiak antolatu guran. Azaldu dutenez, lehenengo tertulia hurrengo eguaztanean egingo dute, hilaren 29an. Horretan, *Haragia* izeneko liburuaz berba egingo dute eta Eider Rodriguez, liburu horren idazlea, gonbidatu dute. Hitzordua arrastiko 07:30ean ipini dute, Plentziako Kasinoan. ◀

**Rap feminista trebatzeko eskola antolatu dute**

**H**ip-hop musikan trebatzeko eskola martxan ipiniko dute laster Gorliz eta Plentzian. Antolatzaileek adierazi dutenez, lehenengo kurtsoan rap feminista uztartuko dute; horretarako, La Basu musikaria izango dute bidelagun. Ikastaroak astean behin egingo dira eta ordu biko klaseak izango dira. Lehenengo biak abenduaren 7an eta 14an izango dira, eguenetan. Ostera, hurrengo biak abenduaren 22an eta 29an izango dira, barikuetan. Klaseak Danontzat gaztetxean emango dira, 18:00etatik 20:00etara. Hip-hop eskolan parte hartzeko asmoa duten denek alde aurretik eman beharko dute izena Plentziako edo Gorlizko gazte topaguneetara joz. ◀

harremanetarako: danontzatgaztetxea@gmail.com

## Uribe Kosta



Urdulizko topaketan, zuhaitz-eskultura bat ipiniko dute, hil dituzten emakumeen oroimenez.

# Matxismoaren kontra egiteko

## Uribe Kostako Emakumeen

IX. Topaketa egingo dute azaroaren 25ean, Urdulizko Inola elkartearen egoitzan.

Indarkeria matxista salatzen hainbat ekitaldi antolatuta dituzte egunotan eskualdean. Izan ere, azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguna da, eta horri begira, askotariko ekitaldiak egingo dituzte udal eta elkarte askok. Horietatik nabarmenezkoa da hilaren 25ean Urdulizen egingo duten Uribe Kostako Emakumeen IX. Topaketa. Goizeko 10:00etan hasiko dira egitarauko ekintzak Inola elkartearen egoitzan; goiz osoan, berbaldi bi egongo dira, besteak beste. Gainera, egunotan Mankomunitateko udalerrietan sortutako adarrak batu eta zuhaitz-eskultura bat osatuko dute, hil dituzten emakumeen oroimenez. ◀

## Herriz herri

### Barrika

**Azaroak 24, barikua**

**18:00** Bideo-foruma: *Desenfocadas*. Goierriko gelan.

### Lemoiz

**Azaroak 24, barikua**

**19:30** *Genero indarkeria. Zer egin dezakegu?* berbaldia, Armintzako kultur etxean.

### Plentzia

**Azaroak 24, barikua**

**17:00** Araldiren indarkeriaren performancea Ontziola plazan.

**19:30** Manifestazioa, Araldi eta Sorginen Alabak deituta, Eskabetxe-fabrikatik hasita.

### Berango

**Azaroak 25, zapatua**

**19:00** *Hoy milagro* antzezlan, Berango Antzokian; sarrera 1 euroan.

**Azaroak 26, domeka**

**18:00** *Ongi etorri, lagun* antzezlan, Berango Antzokian; sarrera doan.

## Barrika

# Euskararen Eguna, azaroaren 26an

Euskararen Eguna da abenduaren 3a; hala ere, Barrikan azaroaren 26ra aurreratu dituzte gure hizkuntzaren aldeko ekintzak. Hartara, domekan askotariko jarduerak egingo dituzte udalerrian euskarari gorazarre egiteko. Egurdiko 12:00etan ipini dute lehenengo hitzordua, Iparralde tabernan. Handik hasiko dute trikiti-poteoa, Joseba eta Victor trikitilarien eskutik. Ostean, herri-bazkaria egingo dute Nagusien Etxean, 14:00etatik aurrera. Menu bi egongo dira aukeran, na-

gusientzakoa eta umeentzakoa, 15 eta 6 euroan, hurrenez hurren. Bazkariko txartelak Nagusien etxean edo liburutegian eros daitezke. Arrastian, 18:00ak aldera, Monda Lironda pailazoek *Rol Jokoa* antzezlan taularatuko dute, hori ere Nagusien Etxean bertan, ume denen gozamenerako. Azkenik, euskararen aldeko ekitaldiei ginga ipintzeko asmoz, eta udagoieneko iluntzeetako hotzari aurre egiteko ere bai, txokolate bero-beroa banatuko dute hori gura duten barrikoztar denen artean. ◀

## Ander Deunari gorazarre egiteko eguna, hilaren 30ean

Urtero legez, azaroaren akabuan Ander Deuna Eguna ospatuko dute barrikoztarrek. Hala, hilaren 30ean, eguenean, Barrikako dozenaka lagun Goierriko Ander Deuna baselizara hurreratuko dira. Horrenbestez, goizeko 11:00etan santu horren omenezko meza nagusia egingo dute. Ordu erdi geroago, Barrikako abesbatzak baselizara hurreratuko diren

denen alaitasunerako abestiak kantatuko ditu. Jarraian, 12:00etan, trikitilariak askotariko doinuak zabalduko dituzte barrikoztar denak dantzant jartzeko. Azkenik, egunari amaiera emateko, 12:00etan herri-hamaiketako egingo dute. Hala, bertaratuko diren herritarrek sabela beteta bueltatu ahal izango dira etxera Ander Deunari gorazarre egin ostean. ◀

## Lemoiz

# Zentralean egiteko proposamen gehiago

**Arrain-haztegia egiteko proiektuaren** ordezkariak aurkeztu dituzte Equok, Ezker Anitzak eta LAB sindikatuak, besteak beste.

egitea proposatu du, Lemoiz Birziklatu izeneko egitasmoagaz. Azaldu dutenez, zentral publiko horrek energia berriztagarriak erabiliko lituzke eta 16 urtean amortizatuta egongo litzateke. Aldiz, LAB sindikatuak eremu horretan zer egin erabakitzea herritarren esku uzteko eskatu dio Eusko Jaurlaritzari. Arrainen haztegia «aukera» bat izan daitekeela eta horren aurka ez duela egingo baieztatu du; hala ere, «marra gorriak» zehaztu gura ditu: «Euskal herritarren onurarako izan behar du, erabakia herritarrek izango dute, zerbitzu publikoa izango da, kalitatezko enplegu publikoak sortuko ditu eta herritarren osasunarekiko eta naturarekiko errespetagarria izango da». Horren harira, arrain-haztegiaren kudeaketa Euskal Herriko kofradiek hartzea izan da egindako proposamena, eta bertan itsasoan galdutako arrainak hazteko aukera izatea. ◀

Lemoizko zentral nuklearrean arrain-haztegi bat egiteko proposamena aurkeztu zuen orain dela aste bi Eusko Jaurlaritzak. Horren aurrean, proiektuak ekosistemari eta ekonomiarik «kalte egin» izan diezaiekeela uste du Equo alderdiak: ez du uste egitasmoak euskal arrantza-sektoreak dituen arazoak konponduko dituenik. Ostera, arrantza artisausisteman baten aldeko apustua egitea gomendatu du. Modu berean, proiektuaren nondik norakoak ezagutu gura ditu Equok, ingurumen-inpaktua ebaluatu ahal izateko. Ezker Anitzak, berriz, bertan haize- eta eguzki-energien kogenerazio zentro bat



Ummm...

AMAIA NEREKAN UMARAN  
Emak-Umea eta Pertson-Ona

## Zinegin, zine egin

Jaialdietan ibili naiz egunotan. Zine irakasle izatearen abantailak. Zinebi eta Zinegin izan dira azkenak. Bigarrena ekarri nahi dut gaurkora. Zinegin, euskarazko zinemaren Ipar Euskal Herriko plaza. Festibal txikia, herrikoia, xarma handikoa. *Handia* eta *Errementariren faltan*, bideo-poteoa, zine-kontzertu gaua gaztetxean eta aurrekontu txikiko dokumental zinez interesgarriak. Sarrionandiaren inguruko dokumentala. «Sarri Sarri, bi badoaz!». Besteak noizko? *Akabuko martxa* eta *Dominikaren istorioa*, artzaina eta emakumea. Gu bai gu Manada! Eta Pasaia Badian 84an gertatutakoaren inguruko erreportajea! «*Emboscada criminal*!» ◀



Naokatsu Tsuda anime-zuzendariagaz batera, Laura Niko eta Miyuki Kurame artistek parte hartuko dute jaialdian. © GETXOKO KULTUR ETXEA

## Hainbat ekitaldi

### Azaroak 25, zapatua

**12:00-13:00** Mozorroentzako armen erreplikak sortzeko tekniken gaineko berbaldia, Laura Niko eta Miyuki Kurame artistakaz.

**12:00-14:00** Sinatze-txanda, Naokatsu Tsuda anime-zuzendari japoniarrarena.

**12:45-14:15** Japoniera-ikastaroa.

**17:00-17:30** Full Metal Harmonyren kontzertua.

**17:30-18:00** Berbaldia, Naokatsu Tsudarena.

**18:30-19:45** Mozorroen lehiaketa.

**19:45-20:45** Yui Kanan Djaren emanaldia.

**20:45-21:00** Sari-banaketaren ekitaldia.

### Azaroak 26, domeka

**11:00-12:45** Miso-zopa egiteko ikastaroa.

**11:00-14:15** Sinatze-txanda, Laura Niko eta Miyuki Kurame artistena.

**12:45-14:15** Origami-ikastaroa.

**17:00-18:00** Karaoke-lehiaketa.

**18:00-20:30** Dantza-lehiaketa.

**20:45-21:00** Sari-banaketaren ekitaldia.

info+: [www.salondelcomicdegetxo.net](http://www.salondelcomicdegetxo.net)

# Japoniar kulturaz blai!

**Getxoko Manga Jaialdia** egingo dute aste-akabu honetan, azaroaren 25ean eta 26an, Areetako Xake plazan. Salmentaguneaz gainera, askotariko jarduerak egongo dira.

**E**kialdeko kultura izango da protagonista Areetako Xake plazan, aste-akabu honetan, azaroaren 25ean eta 26an. Manga Jaialdian 20 salmenta-postu egongo dira: argitaletxeen lan berriak, japoniar animaziozko filmak, *bookartak* eta beste zenbait produktu erosi ahal izango dira bertan. Gainera, hainbat jarduera egingo dituzte. Azoka 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik

21:00etara bitartean zabalik egongo da. Aurtengo ekitaldia Tarasu manga-elkartek antolatu du, beste kolektibo batzuek elkarlanean. Ohi den legez, askotariko jarduerak egongo dira bi egunez, eta publikoaren parte-hartzearen aldeko apustua egin dute antolatzaileek.

Lehiaketen atalean nabarmendu beharrekoa da bideo-jokoaren txapelketa. Aurtun, lehiatzeko aukeratu di-

tuzten jokoen artean daude berbarako *Overmatch*, *Tekken 7*, *League of Legends* eta *Super Smash Bros* jokoak. Ez dira faltako betiko sariketak: *cosplay* (mozorroak), karaoke eta dantzaren gainekoak, besteak beste. Aurtun, horiei Random Dance eta Manga Party txapelketak gehituko zaizkie.

Tailerrek ere garrantzi handia izango dute jaialdian. Bisitariak honako hauetan parte hartzea aukeran izango dute: japoniera, Rubik kuboaren egiteko gakoak, *papercraft* edo paperezko figurak hiru dimentsiotan, origamia, manga-ilustrazioa, ibilgailuen eta agerlekuen diseinua eta Japoniako tra-

diziozko jolasak eta gastronomia. Berbaldiei eta mahai-inguruei dagokienez, aurtun hainbat gai jorratuko dira; berbarako ilustratzaileen eta *concept artisten* egoera profesionala manga-gintzan, maskara japoniarren mundua eta mozorroetarako objektuen diseinua, besteak beste. Egitarauri jarraituz, Full Metal Harmonyren kontzertua ere nabarmentzekoa da, eta Naokatsu Tsuda anime-zuzendari japoniarraren berbaldia ere bai. Bera da aurtengo artista gonbidatua. *JoJo's Bizarre Adventure* animaziozko bideo sail ospetsuaren sortzaile-taldeko zuzendaria da Tsuda. ◀

## Irakurzaleek hainbat hitzordu izango dituzte

**A**zaroaren akabuan ere zorioneko daude Uribe Kostako irakurzaleak; izan ere, hango eta hemengo hainbat hitzorduren artean badaukate zer aukeratu. Horiek denak Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak, Sopolako Irakurle Klubak eta Plentziako Irakurle Taldeak antolatu dituzte. Aipatutako azken elkarte horrek egingo duen saioan izan ezik, beste dene-tan idazleak berak parte hartuko du ekitaldian. Bestalde, Aritza Bergarak *Camino de sangre* bere azkeneko lana aurkeztu die herrikideei Armintzako Kaia tabernan, azaroaren 24an, bari-kuan, arrastiko 07:00etan. ◀

### Egitaraua

#### Azaroak 23, eguena

**19:30** Uxue Alberdigaz hitzaldia, *Jenisjoplin* liburuari buruz, Algortako Aldai patronatuan.

#### Azaroak 28, martitzena

**19:30** Uxue Alberdigaz berbaldia, Sopolako Kurtzio kultur etxean.

#### Azaroak 29, eguaztena

**19:30** Eider Rodriguezen *Haragia* liburuaren gaineko berbaldia, Plentziako kasinoan.

#### Azaroak 30, eguena

**19:30** Kepa Altonagagaz berbaldia, *Patagoniara Hazparden barrena* liburuaren gainean, Algortako kultur etxean.

## Mitxelko Uranga idazle berangoztarraren *MisEntropia* liburua aurkeztu du Ereinek

**E**rein argitaletxeak azaroaren 15ean aurkeztu zuen Mixelko Uranga idazlearen *MisEntropia* saiakera-liburua, Donostiako udal-liburutegiko so-toan. Lan horri esker, Miguel de Unamuno Saiakera Lehiaketaren XVII. edizioaren euskarazko saria irabazi zuen idazle berangoztarrak; Bilboko Udalak antolatzen du sariketa. Urangaren idazlanak «gaurko errealitateari begiratzeko leiho interesgarria zabaltzen duela» azpimarratu zuen epaimahaiak. «Egungo gizartea eta gizabanakoa ere birpentsatzearen, hizkuntza bera iraultzera jotzen du», gaineratu zuten epaileek. ◀

## Txapelketa Nagusiko bigarren itzulian egongo da Jone Uria Albizuri bertsolari algortarra

**B**ertsolari Txapelketa Nagusiko finala helmuga izanda, BECera hel-tzeko azken ekinaldia egingo dabil-tza bertsolariak. Finalurrekoetako lehen itzulia amaituta, 18 bertsolarik egin dute aurrera, eta bigarren itzulian lehiatuko dira. Faseak hiru saio izango ditu: bigarren saioan abestuko du Jone Uria Albizuri algortarrak, domeka honetan, azaroaren 26an, Donibane Lohizunen. Bertara joateko autobusa antolatu du Algortako Bertsolari Eskolak. ALBEkoak 13:30ean abiatuko dira, Teletxeko geltokitik; buelta, saioa amaitzean. Txartela 10 euroan dago. ◀

izen-ematea: 605 704 385 / [albegetxo@gmail.com](mailto:albegetxo@gmail.com)

# hirukagenda

Uribe Kostako asfekaria

2017ko azaroaren 23tik azaroaren 29ra arte



hiruka.eus



Huntza taldeko hiru kidek parte hartuko dute Nazioarteko Trikitixa Jaia Idian, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan. TOLOSALDEKO ATARIA

GETXO

## Infernuko hauspoari txinpartak ateraz, Areetan

Zapatu an, azaroaren 25ean, Nazioarteko Trikitixa Jaialdia egingo dute berriro, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan. Hitzordua 19:00etan ipini dute, eta sarrerak 8 euroan egingo dira salmentan; daborduko eros daitezke. Hala, David (eskusoinu txikia) eta Catlin Romtvedt (biolina) neba-arreben eskutik hasiko da festibala. Wyoming-eko (AEB) biko-

teak zenbait hizkuntza ezagutzen ditu, euskara barne, eta, Boisen, sarritan jotzen dute. Jarrailan, Matthew Ward (eskusoinua) eta Pablo Vergara (bodhran-a) oholtzara igoko dira. Ward musikari irlandarra Galiziarra joan zen orain dela lau urte, eta, denbora laburrean, ezaguna egin zen entzuleen artean. Vergarak *bodhran* musika-tresna irlandarra jotzen du

eta horrela nabarmendu da nazioartean. Juan Ramón Azpitarte *Imuntzo* (eskusoinu txikia) eta Eleuterio Jauregi *Beloki* (panderoa eta ahotsa) musikariak helduko da euskal taldeen txanda; eta jaialdiari akabua emango diote Huntza taldeko Josune Arakis-tainek (eskusoinu txikia eta ahotsa), Aitor Huizik (biolina) eta Uxue Amo-narrizek (panderoa eta ahotsa). ◀



## Azaroak 25 Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna

### Getxo

**2017/11/24**

**10:50** Ikasleek deitutako ekimena. Algortako Fadura institutuan.  
**19:30** Gizatiar emakumeen elkarateak deitutako elkarretaratzea, Bizkaia Zubia plazan.

**2017/11/25**

**13:00** Itzubaltza/Romoko Emakumeen Asanbladak antolatutako manifestazioa, Santa Eugenia plazatik abiatuta.  
**19:30** Algortako Mugimendu Feministak deitutako manifestazioa, Telletxe plazatik abiatuta.

**2017/11/26**

**18:00** *Volar* dokumentala, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan. Gaztelaniaz. Gonbidapenak Algortako eta Itzubaltza/Romoko kultur etxeetan har daitezke.

**2017/12/01**

**18:00** *Sex o no sex* clown ikuskizuna, Virginia Imazegaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 5 euro.

### Leioa

**2017/11/23**

**19:00** *Volar* dokumentala, Kultur Leioako entzulegenan. Gaztelaniaz. Gonbidapenak Gizarte Zerbitzuetan har daitezke. Lucha ere egongo da.

Indarkeriaren kontrako Alderantziko Grafitiak. Informazio gehiago: [berdintasuna@leioa.net](mailto:berdintasuna@leioa.net)

**2017/11/24**

**12:00** Elkarretaratzea ikastetxeetako ikasleakaz. Boulevarden.

Indarkeriaren kontrako Alderantziko Grafitiak. Informazio gehiago: [berdintasuna@leioa.net](mailto:berdintasuna@leioa.net)

**2017/11/25**

**12:00** Elkarretaratzea, Boulevarden.

### Erandio

**2017/11/23**

**19:00** *Violencias sexistas cotidianas: ¿las vemos?* berbaldia, Norma Vázquezegaz, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

**2017/11/24**

**12:00** Elkarretaratzea, udallexean; flashmob-a Ategorri institutuko ikasleakaz; eta kalejira metro-geltokiko sarreraren ondoan dagoen

**2017/11/25**

**17:00** Beldur Barik sarien banaketa, Kurtzio kultur etxean. Uribe Kostako Mankomunitateko Berdintasun Saliak antolatu du.

**19:00** Manifestuaren irakurketa eta puxikak askatzea, udaletxean.

**2017/11/26**

**19:00** *Arquetipos de mujer* antzezlan, Juana Lorregaz, Kurtzio kultur etxean. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

**2017/11/29**

*Hábitos saludables para superar el estrés* tailerra. Informazioa: [itzartu@hotmail.com](mailto:itzartu@hotmail.com)

**2017/11/30**

**18:00** *La habitación* filma, Kurtzio Kultur etxean. Sarrera, doan. Itzartu emakumeen elkarateak antolatu du.

**2017/12/14**

**18:00** *Nuestro último verano en Escocia* filma, Kurtzio kultur etxean. Sarrera, doan. Itzartu emakumeen elkarateak antolatu du.

### Berango

**2017/11/25**

**19:00** *Hoy milagro* antzezlan, Atiakados taldeagaz, Berango Antzokian. Gaztelaniaz. Sarrera: 1 euro.

**2017/11/26**

**19:00** *Ongi etorri, lagun* antzezlan, Zintaka taldeagaz, Berango Antzokian. Euskaraz. Sarrera, doan.

### Plentzia

**2017/11/24**

**17:00** Performance, Araldi emakumeen taldeagaz, Ontziola plazan. Sarrera, doan.

**2017/11/25**

**19:30** Araldi eta Sorginen Alabak taldean manifestazioa, Eskabetzeratik abiatuta.

### Urduliz

**2017/11/25**

Uribe Kostako Emakumeen IX. Topaketa Inola elkartearen egoitzan (Torrebarri, 1)

**10:00** Harrera edo ondoetorria.

**10:05** Topaketaren aurkezpena.

**10:30** Jorge Freudenthal-en berbaldia.

ERANDIO

## Askotarikotasunaren gaineko ipuinak

Izaskun Mujikak *Zuhaitzean hasitako ipuinak* ikuskizuna aurkeztuko du barrikuan, azaroaren 24an, Erandiogoiko ko gizarte-etxean. Emanaldia 19:00etan izango da; sarrera, doan. Saioa 5 eta 6 urteen arteko umeentzat da. ◀

BERANGO

## Euskal dantzek 75 urte beteko dituzte

Zapatuan, azaroaren 25ean, 700 dantzari baino gehiago batuko ditu Simon Otxandategi taldeak, Berangoko udal-pilotalekuan, 19:30ean. Izan ere, 75 urte dira udalerrian euskal dantzak egiten dituen talderen bat dagoela. ◀

GETXO

## Ardoa eta gazta dastatuko dituzte

Mikel Garaizabal enologoagaz ardoa eta gazta dastatzeko aukera egongo da azaroaren 29an, Azebarri kulturgunean. Bazkideek 10 euro ordainduko dituzte; gainerakoek, 12 euro. ◀  
izen-ematea: 688 65 29 47 / azebarr@gmail.com

Eskuen Lorategiraino.

**18:00** Zineforuma *Anigua vida mía* filmagaz, Altzagako Emakumeen Elkartearen egoitzan.

**2017/12/01**

**18:00** Erandioko III. Berdintasun Planaren aurkezpena. Altzagako Emakumeen Elkarteko egoitzan.

**2017/12/16**

**16:00** Emakumeen estropadak, Lutxanako Arriun Elkarteagaz.

## Sopela

**2017/11/23**

**18:00** *Las mujeres que hay en ti* berbaldia Itzartu emakumeen elkartearen egoitzan. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

**2017/11/24**

**19:00** *Volar* dokumentala, Kurtzio kultur etxean. Gaztelaniaz. Sarrera, doan. Itzartu emakumeen elkarteak antolatuta du.

**11:15** Maria Silvestreren berbaldia.

**12:00** Manifestuaren irakurketa.

**12:10** Alsedernaldia, kafea.

**12:40** Herriarren parte-hartzez osatutako eskulturaren inaugurazioa

Informazioa: berdintasuna@uribekosta.org

**2017/12/01**

**19:00** *Volar* dokumentala, kultur etxean. Doan.

## Barrika

**2017/11/24**

**18:00** Bideo-foruma, *Desenfo cadas* filmagaz, Goierriko gelan. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

## Lemoiz

**2017/11/24**

**19:30** *Violencia de género, ¿qué podemos hacer?* berbaldia, Armintzako kultur etxean. Izen-ematea: berdintasuna@uribekosta.org

## AZOKAK

AZAROAK 25 ETA 26

### Getxoko Manga Jaialdia

**Xake plaza (Areeta) | Getxo**

Orduetgia: 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara. Sarrera: 3 euro. Informazio gehiago: www.salondelcomidcdegetxo.net

## BERBALDIAK

AZAROAK 25, ZAPATUA

### Mahai-ingurua: 23 urtez tinko!

**12:00 | Kultur etxea | Urduliz**

Iretargi elkarteak antolatuta. Parte-hartzaileak: Ruben Nieto (Gorka Martinez preso urduliztarraz kartzelan egonakoa), Sergio Garcia (Iñaki Bilbaogaz espetxean izandakoa) eta Urdulizko Iñaki Gilasasti. Doan.

AZAROAK 29, EGUAZTENA

### Plentziako Irakurle Taldea

**19:30 | Kasinoa | Plentzia**

Eider-Rodriguezen *Haragia* liburuz berba egingo dute. Euskaraz. Sarrera, doan.

## ERAKUSKETAK

ABENDUAREN 8RA ARTE

### Bosteko 2017

**Kultur Leioako erakusketa-gela | Leioa**  
Sarrera, doan.

ABENDUAREN 11RA ARTE

### Harriet antologikoa: gidoilaria

**Xake plaza (Areeta) | Getxo**

Komikien erakusketa. Sarrera, doan.

## JAIK

AZAROAK 26, DOMEKA

### Barrrikako Euskararen Eguna

**12:00 | Herrian | Barrika**

Triki-poteoa, herri-bazkaria, antzerkia eta txokolate-jana egongo dira. Informazio gehiago: www.barrrika.eu

AZAROAK 30, EGUENA

### San Andres Eguna

**11:00 | Baseliza | Barrika eta Sopela**

Bakoitzak bere herrian ospatuko du San Andres Eguna; izan ere, santu horren omenezko baseliza bana dago Barrrikan eta Sopelan. Meza, hamaiketako eta musika-emanaldia egongo dira, leku batean zein bestean. Sopelatik baselizara heltzeko, autobus-zerbitzu berezia ipiniko dute. Info+: www.barrrika.eu / www.sopelaudala.org

## MUSIKA

AZAROAK 24, BARIKUA

### Plentziako Kantagune

**21:00 | Eliz plaza | Plentzia**

Kalejiran abiatu aurretik, entsegu egingo dute baselizan, 19:30ean. Parte-hartzea, libre.

## ZINEMA

AZAROAK 24, BARIKUA

### Overrum

**19:00 | Sertutxena eraikina | Gortiz**

Umezeroan Plentzian bizi izandako Ander Pardoaren film laburra aurkeztuko dute. Jostailuak erabiltz egindako pelikula da. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

argi  
hizki  
ak<sup>2017</sup>

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO  
TESTU LABURREN  
VI. LEHIAKETAREN ERAKUSKETA

# argihizkiak

Abenduaren 1era arte  
Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean

EGITZU!



# Umetxoentzako antzerkia

**Txiki, txiki, txikia** jaialdiaren barruan, bi ikuskizunez gozatzeko aukera izango dute umetxoek Kultur Leioako entzungelan; bost saio egongo dira, denera.



The Beatles taldea omenduko dute gurasoek eta umek. © LA PETITA MALUMALUGA

Umeentzako apropos sortutako antzezlanak eskainiko ditu *Txiki, txiki, txikia* jaialdiak, laugarrenez. Leioan ere saioak antolatuko dituzte; Sopenan, Musikaldia izeneko udagoieneko musika-zikloaren barruan taularatu zuten *Ploc, ploc... plik* antzezlanak, azaroaren 12an. Horrenbestez, Kultur Leioan, Nathalie Cornilleren konpai-

niaren (Frantzia) *Chouz* (zapatak) lana oholtzaratuko dute zapatu honetan, azaroaren 25ean; saioak 17:00etan eta 18:30ean izango dira. Eta domekan, azaroaren 26an, La Petite Malumaluga Kataluniako konpainiak *Bitels para bebés* ikuskizuna aurkeztuko du, hori ere Leioako aretoan; emanaldiak 17:00etan, 18:00etan eta 19:00etan izango dira. Lan horretan, lau mu-

sikarik (biolina, saxoa, biolontxelo eta perkusioa) eta dantzari batek gurasoak eta umetxoak gonbidatuko dituzte The Beatles taldearen omenaldi hunkigarrian parte hartzera. Sarrerak 3,75-5 euroan salduko dituzte, egun bietan. Ume bakoitzeko, gehienez, heldu bana joatea gomendatzen dute antolatzaileek.

Ez da erraza ume txikiak apropos sortu eta egokiak diren lanak topatzea. Horixe da *Txiki, txiki, txikia* festivalak betetzen duen hutsunea: 6 hilabete eta 4 urte bitarteko umeak dauzkaten sendiei arte eszenikoez gozatzeko aukera eskaintzen die. Aurtin, jaialdiaren laugarren ekitaldia egingo da Bizkaiko zenbait udalerritan.

## Hur-hurretik

Formatu txikiko lanak dira. Hur-hurretik antzeztan dituzte, eta, hala, umeek kanpoko ikusle izateari uzten diote, istorioan bertan murgiltzeko, antolatzaileek azaldu dutenez. Txikiek ulertzeko eta gozatzeko helburuagaz sortu dituzte; antzerkia txikitatik bizitzea eta erakargarri egitea bilatzen dute, antzerki-mundua ezagutzeko ondo pasatzeko. *Txiki, txiki, txikia* orain dela hiru urte sortu zuten Herrialde Katalanetan, *El mes petit de tots* jaialdiaren senide txiki legez. ◀

info+: [www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com)



Ttapi-ttapa

IRATXE MARTA LINARES  
AEK-ko irakaslea

## Eta nork eutsiko dio gure aterkiari?

Jai bakoitzean lehen amaren umetokiak ematen digun babesean egoten gara. Mundura etorritakoan, gurasoen eta maite gaituzten besoen berotasunean lasai eta pozik sentitzen gara eta itzal horrek urteak igaro ahala laguntzen digu. Nagusitan ere aterpea behar dugu, gure egunerokoa osatzen duten arlo guztiak babestuko dituen aterkia behar dugu eta parasola horrek handia behar du. Parasola horri ezin diogu bakarrik etxekook eutsi. Hortxe nire kezka! Babesik gabe gaude. Azken boladako berriak irakurritakoan, behintzat, horixe daukadan sentsazioa. Eta ez zait batere gustatzen horrela sentitzea, ezta nire inguruko guztiok babesgabetsun horretan egotea. Baina ezin dut beste modura sentitu gure agintariak horixe helarazten badigute.

Adibide bi aipatzearen (eta ez ditut maila berean ipini nahi, baina babesik ezak neurri txikian zein handian eragin dezake): Leioan herriko argiztapen-sistema aldatzen ari da. Herritarrok kexu gara, auzo guztietatik heldu dira kexak. Puntu baltzak ugaltzen ari dira, jartzen ari diren farol berriek, askoren ustez, behar beste argi ematen ez baitute. Horren ondorioz herria beldur da, ez da babestua sentitzen, alkatetik eta gobernu taldeak ez diote behar duen geriza ziurtatzen.

Bestalde, justizia. Justiziak gure aterkirik handiena beharko luke baina, hori barik, berrerorik krudelena izan daiteke hainbatetan. San Ferminetako bortxaketaren kasuan argi ikusten ari da hainbat komunikabide biktima epaitzen ari direla, justizia bere egia kolokan jartzen ari dela eta, aldi berean, bortxatzaileen babes geruza sortzen saiatzen ari dela. Non dago neska hori oinaze gehiagotatik babestuko duenik? Non biktimak behar duen aterpea? Eta *Altsasukoak etxean nahi ditugu!* ◀

Hitza emanda



## Ubeldura

Bortizkeriarena da gure kultura: mespretxuak, kontrola, irainak, zentsura... Marka batean nola ikusten dugu, ba? Izebergaren punta dugu ubeldura!



PERU VIDAL GURRUTXAGA  
Bertsolari leioaztarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



## Eskualdean ere egingo dute Bidezko Zapatua

Fair Saturday (Bidezko Zapatua) Eguna artearen eta kulturaren bidez mundua aldatzeko nazioarteko eguntzat jotzen dute; ekitaldietan batzen den dirua gobernu kanpoko erakundeentzat izan ohi da. Hala, ekimen horren barruan, hainbat jardunaldi egongo dira eskualdean, zapatu honetan, azaroaren 25ean, Berbarako Getxo udalerriko Arrigunaga, Andrés Isasi, Zozoak eta Ondarreta abesbatzek Ipar Alde korala (Derio), Bilbo Argia otxotea eta Sestaoko orfeoia lagun izango dituzte, zenbait elizatan egingo diren kontzertuetan. Sopelari dagokionez, bertokoa den Urepel eta Lagun Artea abesbatzek Emitenia (Bilbo) korua gonbidatu dute San Pedro elizan abestera. Ekitaldi horiekaz denakaz, Barreras Invisibles, Vicente Ferrer, Peralde, Caritas eta beste hainbat GKE-entzako dirua lortuko dute, borondatezko donazioen bidez; izan ere, ekintza gehienak doakoak dira. ◀

## Ekitaldi batzuk

### Getxo

**10:30** *Todas mis fotos hablan de ti* liburua sinatzeko ekitaldia, Cristina Maruri idazleagaz, Areetako Campus liburu-dendan. Barreras Invisibles elkartearentzat izango da batuko den dirua.

**20:00** Arrigunaga, Andrés Isasi eta Ipar Alde abesbatzen emanaldia, Algotako San Nikolas elizan. Sarrera, doan. Vicente Ferrer Fundazioarentzat izango da batutako dirua.

**20:00** Zozoak abesbatzaren eta Bilbo Argia otxotearen emanaldia, Algotako hirukoiztarren elizan. Sarrera, doan. Hirukoiztarrak Sudanen egiten dabilen proiekturako izango da batuko den dirua.

**20:00** Ondarreta abesbatzaren eta Sestaoko orfeoien emanaldia, Areetako Ama Mesedeetakoaren elizan. Sarrera, doakoa izango da. Peralde GKEarentzat izango da batuko den dirua.

### Sopela

**20:00** Urepel, Emitenia eta Lagun Artea abesbatzen emanaldia, San Pedro elizan. Sarrera, doan. Caritasentzat izango da batuko den dirua.

info+: [app.fairsaturday.org](http://app.fairsaturday.org)

# «Gure helburua da plazara heldu eta jendeari musika eskaintzea»

## Urrats boskotea urteko

25-30 kontzertu inguru ematera hel daiteke, eta horien artean gehienak uda sasoiaren izaten dira.

ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO ▶

**G**arai bateko zirkuen antzera, gaur egun animalia barik, euren tresnakaz eta trasteakaz. atzera eta aurrera, topa ditzazkezu uda luze osoan Urrats erromeriako kideak, plazaz plaza. Gogorra bezain polita izan behar duen titiritero-lan horrek gure arbasoen erromerietara eroan gura gaituzten boskotea dakarkigu gurera gaurkoan.

### Nortzuek osatzen duzue Urrats eta zelan elkartu zineten?

**Beñat:** Ni gernikarra naiz, eta trikitiaren mundutik nator, musika tradizionaletik zehazki. Beti kalean jotzen ibili naiz, bikote eta fanfarre formatuan. Hala, egia esan, Urrats izan da nire lehenengo taldea.

**Xabi:** Aurretik nik eduki dudana talde bakarra Oihartzuna izan zen, kuadrillakoekin sortutako taldea, punka eta rocka egiten genituen. Urrats nire bigarren taldea izan da, eta oso gustura egon naiz; orain, Nomadak proiektu berrian sartuta nago.

Endikak, berriz, talde gehiago eduki ditu; Rusted izan zen lehena, eta rock AC/DCroa egiten zuten. Urrats bere bigarren taldea izan zen eta orain Elein taldean ere badabil.

**Beñat:** Talde gehienetan dabilen taldekidea Irantzu dela esan daiteke: Cloverwind taldea (folk irlandarra), The Binilos taldea, Kepa Junkeraren sorgina izan da... Bestalde, Lander Bleed taldean ere badabil, eta Revolta taldeagaz argi-teknikaria ere bada... Azken finean, esparru denak jorratzen ditugu eta musika-mota denetako jendea batuta gaude.

### Zelan eta non elkartzen da Urrats?

**Xabi:** Egia esan, hasierako partaideak eta oraingoak ez gara berberak... Lehenengotan, Endika gitarristaren ideia izan zen, nire kuadrillakoa da eta behin deitu egin ninduen berarekin batera baxua jotzeko. Gotzon Batikon trikitilaria ere deitu zuen, eta berak ezagutzen zituen Irantzu eta Lander; orduan, horrela, momentuan kontaktuetatik tiraka batu ginen. Ostean,



«SGAEri ordaindu beharrekoen gaiaren gainean, ondo legoke informazio gehiago izatea, taldeok nola jokatu jakin ahal izateko». © URRATS

partaide batzuek taldea utzi egin zuten, eta beste musikari batzuk bilatu genituen, parrandan ezagututakoak, ezagunak, lagunak...

**Geroz eta erromeria gehiago daude, eta suposatzen dut ezagun egitea geroz eta zailagoa izango dela, kompetentzia handiaren ondorioz. Zelan izan zen zuen hasiera mundu honetan? Kostatu zitzaizuen lekua egitea?**

**Xabi:** Bada lekua egitea ez dakit, baina, egia esan, kontzertuak... Lehenengo udan, Baga Bigak pilo bat lortu zizkigun, hasiberriak ginela kontuan izanda; horrek piloa lagundu gaitu. Azkenean, kontzertuak emateak eta jendeak zu ikusteak oinarri bat ematen dizu, eta deitzen zaituenak badaki ondo egin dezakezula. Egia esan, betidanik *por libre* ibili gara, nahiz eta Baga Bigak kontzertuak lotu, azkenean, guk nahi genuena egiten genuen... Orain, denak guk lotzen ditugu, ezagunen bitartez, sare sozialen bitartez, beste herri batzuetan ikusi gaituztelako...

**Jende askok pentsa lezake: musika-tresnak ondo jotzen jakinda, zergatik jardun erromeria-talde bezala eta ez bere abesti propioak sortzen dituen talde bat legez?**

**Xabi:** Azkenean, erromeria-talde baten mundu denak ezagutzen dituen abestiak jo ahal ditu, baita jai-giro oro-

korragoa sortu ere; gainera, denbora luzeagoz jo dezakezu...

**Beñat:** Gure helburua plazara heldu eta jendeari musika eskaintzea da; kanta ezagunak joz gero, baduzu jendearen harrera. Hori egiteko modua erromeria zela ikusi genuen.

**Erromeria-taldetzat duzue zeuen burua, baina, erromeria tradizionalakaz**

**zerikusirik ez. Zergatik izen hori?**

**Beñat:** Horren errua trikitiaren erabilera dela eta izan daiteke: trikitia agerleku batean sartzen zenean, erromeria deitzen zitzaion, eta fandangoa zein arin-arinak jotzen ziren. Ostean, triki-booma heldu zenean, jendea kanta ezagunak jotzen hasi zen, eta berbena moduan ezagutzen ditugunen itxura hartzen hasi zen. Trikitia talde hauen oinarria izan denez, bada den-dena identifikatu da erromeria moduan. Hori dena ezjakintasunetik, noski! Kar, kar, kar.

**Beharbada, musika-talde askok ez dakite, baina, zer deritzozue SGAEk jotzen duzuen jai denetako jai-batzordeei zein elkartei jotzen duzue-nagatik kobratzea?**

**Beñat:** Guk, egia esan, halako kasu edo egoera bat eduki genuen SGAEekin. Usansoloko kontzertu baten harira, bertako SGAEeko arduradunak kontzertu horretako lista pasatzeko eskatu zigun, eta hori pasatuz gero, jo genuen herriko udalari ehuneko ez dakit zenbat merkeago aterako zitzaiola esan zigun. Badirudi, guk jokatogatik kobratzen ibiltzen direla... Baina ez dakigu zenbaterainokoa den kontua... Ondo legoke horren gaineko informazio gehiago egotea, horrelako egoeren aurrean, taldeetako kideek zelan jokatu jakin ahal izateko. ◀

## URRATS (2013)



### Taldekideak

• Endika (gitarra), Xabi (baxua), Beñat (Trikitia), Lander (bateria) eta Irantzu (abeslaria, zeharkako txirula eta whistle txirula irlandarra).

### Erreferentziako 5 talde

• Gozategi, Sorotan bele, Kaotiko, Kortatu, La polla.

### Musika-estiloa:

• Erromeria, rockeko joeragaz.

### Sortze-urtea:

• 2013ko uda.

## «La higuera de los bastardos egitea oso gogorra izan da»

**Karra Elejalde Garai** aktore gasteiztar ezagunak *La higuera de los bastardos* filma azaldu du, baita grabatze-lanak zelakoak izan ziren ere, Ane Murugarren zuzendari nafarraren aginduetara. Ramiro Pinillaren *La higuera* liburuan oinarrituta dago obra, eta Getxon filmatu zuten iaz. Aurretiko estreinaldia joan den eguaztenean egin zuten, Begoña jauregian. Bariku honetan, ostera, denentzako estreinaldia izango da, Getxoko kirol-portuko zinemetan.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA / ARGAZKIA: BLOGMEDIA

**Zer aurkituko du *La higuera de los bastardos* filma ikustera sartuko denak?**

Zaila da esaten, filma sailkatzea ez delako erraza. Drama eta komediaren artean nabigatu duela esango banu harrigarria litzateke, baina hala da. Modu dramatikoan hasten da filma, liburua bezala. Izan ere, eleberria irakurtzen hastean nabaritzen da zein mamitsua, tragikoa eta dramatikoa den. Gero, apurka-apurka arintzen doa eta irribarrea ateratzen dizu, azkenean algarra eragiteko. Anak [Murugarren zuzendariak] film oso berezia egin du; umorezkoa da, bai, baina memoria historikoa ukitzen du. *Spoiler* egin barik, esan dezaket falangista amorratu, zital eta erasokorra naizela. Gerra Zibila amaitu eta bospasei urte geroago, norbaitek errepublikazale edo sozialistaren bat salatzen zuenean, berak eta bere modukoek salatutakoa paseatzera eroaten zuten eta arekan, errepide- edo bide-bazterrean, hiltzen zuten. Halako zakur bat da, bat-batean eremutar bilakatzeko dena, eta ez krisialdi erlijioso edo ideologikoa izateagatik, baizik eta ume baten begiradak beldurtuta. Izan ere, ez ditu Mugimendua eta falangismoa alde batera utziko. Izugarria da; pertsonaia benetan zaila zen egiteko, bihurgune handiak dituelako. Gainera, filma ere egiteko nekeza izan zen, hotzagatik eta euriagatik.

**Irakurri zenuen Ramiro Pinillaren *La higuera* liburua Rogelioren pertsonaia prestatzeko?**

Bai. *La higuera* liburua eta gidoia ere irakurri nituen.

**Zein bestelako prestaketa egin zenuen zure pape-rean sartzeko?**

Beti ahalegintzen naizena egiten: halako pertsona bat horrelakoa izatea ezinezkoa dela pentsatzea, alegia. Ez dago inor bizitza osoan on-ona denik, sekula haserretu bakoa. Gaizto-gaiztoa ere ez, ez dago bizitza osoa inbidiaz beteta bizi den jenderik. Pertso-

“**Hamahiru ordu ematen nituen mela-mela eginda, oinak hotz eta gorputza dardarka. Eta horrela sei aste jarraian**”

na bakoitza hainbat konturen nahasketa gara, gaur ematen dugu eta bihar hartu. Baina egia da bai batzuetan egon direla pertsonaia batzuk, *Miel de naranjaseko* On Eladio bezala, oso zailak egiteko eta defendatzeko. Izan ere, gaiztakeriaz beteta daudenez, pentsatu beharra daukat maltzur-maltzurra eginez gero, panfletoan eroriko naizela. Nik sinetsi nahi dut badaudela pertsona zital-zitalak, seme-alabei igandean asteko saria eman eta ohartaraziko dietenak azukrearen gainean: «kontuz! Hori txarra da hortzetarako!». Gainera, hori esan eta musutxu bat emango diete umei: «eman pa aitari!». Eta gero sa-

sikumea izango da, edo torturatzailea, bortxatzailea, maltzurra edo hiltzailea. Bortxatzaileek ere, eta espetxeak jendez beteta daude, seme-alabak eta euren jendea maite dituzte. Edozein gizakik baditu ontasun-arrastoak –nahiz eta psikopata izan, gixajoa, gaixorik dagoelako-. Antikristoa ez bada, jaiotzean mundu guztia da ona. Gero, jainkoak ez garenez, gizakiok ahultasunen, inbidien, bekatu arinen eta mortalen, desbideratzeen edo dena delakoen mende gaude. Horregatik ahalegintzen naiz beti pertsonaiei hiru dimentsio ematen. Dena den, oso zaila da empatia agertzea protagonistarekin. Film batean moduren batean edo bestean publikoak empatia izan behar du protagonistarekin. Antzeko zer edo zer gertatzen da Ermorekin, Rogelioren adiskidearekin. Pertsonaia nazkagarria, zitala eta maltzurra da, eta ondo baino hobeto egin du Carlos Arecesek. Filmean ere badaude dena oso ondo egiten duten lankide asko ere: Ramón Barea, Mikel Losada, Andrés Herrera, Pepa Anierte, Jordi Sánchez...

**Lehen hotzaz kexatu zara.**

Eta euriar. Euria zineman asko eskertzen da, baina hamahiru ordu eman behar dituzu euripean. Siberia Gasteizkoa naiz eta hotzarekin eskarmentua daukat. Halere film oso neketsua izan da niretzat *La higuera de los bastardos*, *A Esmorga* galegozko filmaren hainakoa. *A Esmorgaren* filmatzean zortzi ziklogenesi izan genituen zortzi astetan: ziklogenesien errekorra! Bestalde, Getxon txarto, gaizki, deseroso, za-





kar eta garratz pasatu nuen, lanordu piloa sartuta, egun bat ere libratu barik. Film oso gogorra izan da. Esaten dute erditze zailetan ume azkarrak ateratzen direla eta gu filmaren emaitzarekin pozez zorutzen gelditu gara, eta ikusleak ere oso pozik irtetzen dira. Pena da Ana Murugarrenek eta Joaquín Trincadok, zuzendariak eta produktoreak, ekoiztetxe txikia osatzen dutela; ez digu Warner-ek banatzen. Hala, behar izango ditugu publikoa eta ahoz ahokoa. Dena den, ni pertsona kaskarra nintzateke esango banio baten bati: «eh, joan zaitez ikustera, aparta baita!», egia izan barik, txarto geldituko nintzatekeelako. Batez ere, bizitza osoa honetan eman eta 50 film baino gehiago egin ondoren. Hori norbait defendatzea bezala da «hori onena da!» esaten, entzun behar duzunean: «hori onena dela? Ezta pentsatu ere, Karra!». Txarto geldituko nintzateke esango banu jendea ez dela berdin aterako film horretatik egia ez balitz. Polemika eragingo duen filma da. Azkenean, Rogelio pertsonaia gaiztoa edo negatiboa da, auto-kalbario batetik pasatzen dena, falangista izateari uko egin barik. Hala, beti mugan mantentzen den filma da. Anak egoki zuzendu du.

**Ana Murugarrenek filma egin aurretik behin baino gehiagotan esan zuen Rogelioren papera zuk egin behar zenuela. Kostatu zitzaion zu konbentzitzea?**

Ez. Papera edo filma ez bada nire gustukoa, ez dago ni konbentzitu nauen zuzendaririk, edozein izanda ere. Nire pertsonaia egundoko erronka zen: gaitz

eta ezezkotasun denek zamatuta zeukaten. San Pablo modukoa da: tximista erori arte erromatar zikina zen, kristauen jazarlea, eta tximistak buruan jo arte ez diozu hori barkatzen. Baina kasu honetan, ez dago tximistarik buruan jotzeko, izan ere, burutik nahiko eginda dago. Hori lehertuko duen elementua ume baten begirada da. Pertsona bortitzen atzean

**“ Sinetsi nahi dut badaudela pertsona zital-zitalak, seme-alabei igandean asteko saria ematen dietenak ”**

askotan beldurra dago: kontserbatzaileek beldurra diote aurreratzeari; inguratutako arratoiak salto egingo dizu erasora, ez du beste aukerarik ikusten. Kasu honetan ume baten begirada garbiak eragingo du beldurra, umeak erakutsiko duen ausardiagatik. Rogelio ohituta egon da hiltzen zuen jendea kikituta egoten. Berak bizkarrez ipini, tiro egin, autora joan, euria ari duela eta etxera. Baina une batean, filmaren hasieran, ume bat dauka begira, bere aita zelan eroaten duten ikusten du. Eta Rogeliok dio «zuk zenbat urte dituzu?» eta umearen amak erantzuten dio «hamalau», adin horrekin ezin dutelako fusila-



tu. Eta umeak esaten du «hamasei ditut». «Hamaseirekin hiltzeko balio duzu» esan, eroan eta hiltzen dituzte aita eta umea. Familia eta ume horren adonak, eta 10-11 urte dituen ume txikiaren begiradak aldatzen dute Rogelio, goizetik gauera. Eremutar bilakatuko da eta pikondoa zainduko du, jakinda bere sustraiak elikatzen direla berak hil dituen bi gorpue-tatik. Hasiera beldurgarria da.

**Zelan izan da Murugarrenen aginduetara egotea?**

Anarekin lan egitea oso eroso izan da. Oso argi dauka zelan egin beharra dagoen dena eta logikoa da, bestela nahaste-borrastea litzateke. Baina, aldi berean, oso irekita dago ekarpenak jasotzeari, argudiatzen badituzu. Pertsonaia Anarekin eraikitzea oso erraza egin zait. Askok lagundu dit, batez ere esan zidanean proposamenen bat «zu eta pertsonaia erosoago sentiaraztea ekarriko badu, balio du». Idazten duen zuzendariak, Julio Medem-ek adibidez, pertsonaiaren ideia egiten du bere buruan, baina 50 pertsonaia idazten ditu filma baterako, hala ere aktore bakoitzak lupaz begiratu dio bere paperari. Hala aktoreari askatasuna uzten badiote aktoreak ezusteko onak emango ditu. Gutxienez, entzun behar diote eta txorakeriak besterik ez baditu esaten, bada «nik esaten dudana egingo duzu» bota eta listo, baina behin eta berriro asmatzen badu, aktoreak filmazioaren bigarren asterako badaki pertsonaia horretaz papera idatzi duen zuzendariak baino gehiago. Oso polita izan zen Anarekin lan egitea. Hori bai, filma gogorra izan zen: hotz handia eta egunak joan eta egunak etorri hamahiru orduz euria gainean neukan. Auto baten kanpoaldean joan, ehun kilometro orduko abiadura, eta euria zure aurka sentitzea ez da erraza. Euria kontrolatua eta artifiziala izan behar denez, jarraian, geratu gabe, botatzen zidaten gainera. Izan ere, ezin genuen euri naturalarekin filmatu, planoaren erdian atertuz gero, kontraplanoa filmatzean euria ez ikustea *racord*-akatsa izango litzatekeelako. Normalean, suhiltzaileek botatzen digute, edo ureztatze-ahoretatik hartzen da. Gure kasuan, zisterna metalikoak erabili genituen. Gaua pasatu ondoren, goizean ur hori zero gradutan edo gradu batean egoten zen. Hitz egitea ezinezkoa zen eta erortzean min egiten zidan buruan, hain hotz egonda. Hamahiru orduz horrela egonda, nahiz eta neoprenoa eroan, mela-mela eginda eta izoztuta geratzen nintzen laugarren hartualdirako, oinak hotz eta gorputza dardarka. Eta horrela sei aste jarraian.

**Horrelakoetan damutu izan zara aktorea izateaz?**  
Ez. Damutuko banintz, antzerkera joango nintzateke.

**Eguraldia eta euri artifiziala aparte utzita zelan egon zineten Getxon?**

Oso ondo. Ederto bazkaldu genuen. Getxon primeran egon nintzen, alde gogorra kenduta. Lankideak egundokoak izan ziren eta giroa ere izugarria.

**David Pinilla, Ramiro Pinillaren semea, izan zen grabazioan. Zer moduz beragaz?**

Bai, egia da, psikiatrarena egin zuen. Berarekin oso ondo. Aurretik ezagutzen nuen eta oso pertsona jatorra da; barre asko egin izan ditut berarekin. Jende askok ez daki nor den, baina *Inocente*, *inocente* tele-saioan, *Davo* amua zen beti. Getxon ikusi nuenean, galdetu nion «baina zu al zara Ramiroren semea?» eta berak, «jakina, ni neu naiz!». ◀

## López de Eguilaz eta Ybarra jokalariei, agur

**Nazioartean belar-hockeyan jokatzeari** utzi diote María López de Eguilaz eta Rocio Ybarra kirolariek. López de Eguilaz erretiratu egin da.

**M**aría López de Eguilaz belar-hockey jokalaria getxoztarrari eta Rocio Ybarra berangoztarrari agurra egin zioten joan den astean, Eusko Jaurlaritzako Bilboko egoitzan.

Izan ere, Basque Team euskal kirolaren fundazioak agur hunkigarria egin zien. Getxoztarrak goi-mailako lehiaketa utzi du; Rocio Ybarrak, ostera, Jolasetan jarraituko du baina ez du nazioarteko partida gehiagorik jokatuko. Jon Redondo izan zen biakaz ekitaldian. Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisiko eta Kirolaren zuzendariak azaldu zuenez, López de Eguilazek eta Ybarrak amaitu egin dute Basque Teamagaz 2008tik zeukaten harremana, hamar urtez nazioarte-mailan «arrakasta itzela» izan ondoren.

López de Eguilazek lehiatzeari utzi dio goi-mailako kirolean hamahiru urtez egon ondoren, bizitza pribatuari tarte handiagoa eskaini gura diolako. Ybarrak, ostera, ez du nazioarte-mailan lehiatzen segituko Espainiako selekzio absolutuagaz, 266 partida jokatuta eta gero. Dena den, bere klubagaz, Jolasetaz, jokatzen jarraituko du.

Uribekostar biak gorengo mailara iritsi dira kirolean. López de Eguilazek

birritan parte hartu zuen Olinpiar Jokoetan (Beijingen, 2008an, eta Rio de Janeiron, 2016an) eta diploma bi eskuratu zituen. Ybarra hiru Olinpiar Jokotan lehiatu zen (Atenasen, 2004an, Beijingen, 2008an, eta Rio de Janeiron, 2016an) eta diploma bi irabazi zituen.

### Umeak entrenatzen

Hilabete pasatu da María López de Eguilazek goi-mailako kirola alde batera uzteko erabakia hartu zuenetik. Aitortu duenez, «asko kostatu» zitzaien aukera izan zen, baina gaur egun «pozik» dago hartutako erabakiagaz eta «bizitza berriagaz». Halere, aitortu du «pena handia» eman ziola, «batez ere oso kirol-sasoi onean nen-

## Jolasetako talentua azterbide

**G**abriel Llorentek eta Juan Bosco Vilallongak parte hartuko dute Espainiako 13 urtez azpiko mailaren kirol-teknifikazioko bosgarren eta azken elkarretaratzean. Jolasetako belar-hockey taldeko jokalariek Madrildo Blume errendimendu handiko zentroan izango dira abenduaren 5etik 8ra bitartean, Espainiako



Izan dituen entrenatzaile denei eskerrak eman zizkien Rocio Ybarrak. © BASQUE TEAM

goelako, baina zalantza nuen nire bizitzan zer egin gura nuen, eta familiagaz eta beharrea denbora gehiago eman nahi nuen. Horrek lehiatik aldendu ninduen, baina ez kirolek, nire aisialdian borroka-arteetan eman baitut ize-na». Gainera, azaldu duenez, «umeak entrenatzen hasi naiz, ezin dut egonean egon». Dioenez, «oso hurretik segitzen dut nire taldekideek egiten duten dena, baina daborduko harmailatik, zaleturik zaletuena legez».

Rocio Ybarraren esanetan, denbora luzez «beldur izan diodan momentua heldu da», «agur gogorrari» erreferentzia eginez. Halere, jokalaria berangoztarra «pozik» dago: «erabakia nik hartu dudalako, lesio batek

edo kanpoko erabakiren batek nire bidea moztu baino lehen. Zorionekoa naiz, leku berezian, Holandan, jokatu nuelako nire nazioarteko azken partida, joan den abuztuaren 26an. Herrialde hori nire bigarren etxea izan zen eta hockeya bizitzeko beste modu bat erakutsi zidan. Gainera, jokatu ahal izan nuen denbora luzean lagundu egin ninduen jendaurrean, nire senideen eta taldekideen aurrean; horregatik ere zorionekoa naiz», nabarmendu du. Basque Teamen arabera, «Euskadin sakon errotuta dagoen kirol baten estandarte» izan dira uribekostar biak. «Bartzelonan 1992. urtean egindako jokoek hockeyaren tradizioari indarra eman zioten. Emakumezkoen hockeyak aurrerapausoa izan zuen. Nagore Gabellanes, Teresa Motos, Maider Telleria eta Silvia Manrique euskaldunen parte hartzea izan zuen taldeak urrezko domina irabazi zuen, Joko batzuetan egindako estreinaldian», oroitarazi dutenez. María Lopez de Eguilazek eta Rocio Ybarrak «emakumezkoen hockeyak gurean izan duen ibilbide oparora euren harri-koskorra ekarri dute», joan den astean azaldu zuten. Horren truke, «merezitako omenaldia» egin zieten. ◀

## Ane Arana, Holandan, Espainiako taldeagaz

**A**ne Arana Mentxaka Leioa Waterpolo taldeko jokalaria Herbehereetako Zeist herrira joan da, Espainiako Igeriketa Errege Federazioak deituta. Arana aurreko martitzenetik dago Holandan, entrenamendu bereziak egiten, eta bariku honetara arte izango da bertan, federazioak za-

baldu duenez. Kadetea, 2002an jaiotakoa, Euskal Herriko jokalaria bakarra da kontzentrazio horretan. Leioa Waterpolo zoriondu egin du jokalaria, eta gogorazi du bigarren aldia dela Arana horrelako trebatze-saio batera deitzen dutena. Joan den hilabetean, Valentzian egon zen. ◀

## Inhar Ugarte, munduko pilota-txapelketan

**I**nhar Ugarte Munduko Pilota Txapelketan jokatzen dabil egunotan. Sopolako Kurene pilota-elkarteko jokalariek euskal selekzioagaz bidaiatu zuen Kolonbiara, joan den zapatuan. Hurrengo egunean ekin zion lehiari eta dena ondo badoa azaroaren 26ra bitartean izango da bertan. Gazte ge-

txoztarra Llages, Nazioarteko joko eta Chaza modalitateetan lehiatuko da. Munduko txapelketan 17 herrialdek parte hartu dute: Italia, Belgika, Holanda, Frantzia Ingalaterra, Mexiko, Venezuelak, Ekuador, Bolivia, Uruguai, Txile, Argentina, Kuba, Paraguai, Valentzian Herria, Kolonbia eta Euskal Herria. ◀

# Txirrindulariak, 2018rako prest

**C**ristina Martínezek Bizkaia Durango-Euskadi Murias taldean jardungo du 2018an, Lointek taldea utzi ondoren. «2018ko denboraldia nire laugarrena izango da talde euskaldun batean eta Bizkaia Durango-Euskadi Murias taldeagaz egotea harro sentitzeko modukoa da niretzat, azken urteetan oso talde sendoa dela erakutsi baitu», dio gazte valentziarrak. Talde berean Sandra Alonso txirrindularia arituko da, bera ere valentziarra. 2018an bigarren denboraldia hasiko du 23 urtez azpikotan. Fitxaketa bi horiekaz daborduko 8 txirrindulari ditu Durango-Euskadi Murias taldeak. Aldiz, Baqué-BH Teamek 20 txirrindulariko taldea osatu

du 2018ko denboraldirako. Horietatik 12 berriak dira. Ostera, Euser-Hirumet Teamek 19 txirrindulariko taldea aurkeztu du. Joan den azaroaren hasieran taldeak bere lehenengo kontzentrazioa egin omen zuen Urkiolan. Nabarmendu beharra dago Juan Diego Cárdenas Punta Galeako kidea kategoriaz igo dutela, juniorren taldetik nagusira.

**Bioracer Elmet: txapeldun Parlan**  
Lidia Barba Bioracer Elmet taldeko ziklo-krosariak txapela lortu zuen Parlan (Madril) 23 urtez azpiko kategorian. Gainera, bigarren lotu zen absolutuan, Ruth Moll balearraren atzetik. Elorrioren eta Arbulon ez zuten emaitza onik lortu Bioracer Elmetekok. ◀



Sandra Alonso txirrindulariak bigarren denboraldia egingo du Euskal Herrian. © YON SUINAGA

## Eder Gomezek, brontzezko domina bi

**E**der Gomez borrokalari astrabuduarrak brontzezko domina bi irabazi ditu Budapesten egindako Munduko Txapelketan, *light contact* eta *kick boxing* modalitateetan, hurrenez hurren. Gomezek azaldu duenez, esperientzia «oso ona» izan da Hungariako hiribu-

ruan bizitakoa. Hala ere, «penaren penaz» bueltatu behar izan duela aitortu du, finalurrekoetan lesionatu zelako eta ezin izan zuelako finalean borroka egin. Dena dela, burua hotz du oraindino, eta etorkizunera begira dago daborduko. Astrabuduarrak aurreikusita du apirilean izango dela hurrengo txapelketa: Austriako Opena. Hala, datorren urteko Europako txapelketa ere prestatzen hasiko dela jakinarazi du: «ea honetan dominaren bat lor dezakedan. Horixe da helburua». ◀

## Jon Rahm, urteko jokalaririk onena izendatuta

**J**on Rahm golf jokalaririk onena izendatu dute Europako Zirkuituan. Hala, Sir Henry Cotton saria jaso du gazteak; Estatu mailan beste lau jokalaririk bakarrik jaso dute bereizgarri hori. Adituek diotenez, barrikoztarraren ibilbidea

«bikaina» izan da aurtengoa, amateurretik profesionalera salto egin zuenetik. Gainera, aurtengo denboraldiari amaiera are bikainagoa emateko, zirkuituko azkenengo txapelketa ere irabazi zuen barrikoztarrak, Dubain, Shane Lowry jokalaria garaitu ondoren. Hala, urteko hirugarren txapelketa irabazi du Rahmek. Modu berean, Rolex Series zirkuituan garaipen bi lortu dituen lehenengo jokalaria izan da bera ere. 23 urteagaz, barrikoztarrak mugarik ez duela argi utzi du. ◀



Maria Luisa Irizar Garaikurra irabazi du Maite Arraiza Aramendia getxoztarrak. GOIENA

## Behobia-Donostia lasterketan, laugarren

**M**aite Arraiza Aramendia atleta getxoztarrak irabazi du Maria Luisa Irizar Garaikurra, Behobia-Donostia lasterketan. Arraiza donostiarrak da sortzez, baina Getxon bizi da aspaldidanik. Hori dela eta, bere jatorri donostiarrari esker, lasterketako helmuga gurutzatu zuen lehenengo

gipuzkoarra izan zen joan den azaroaren 13an, 1.17.35 denbora eginda. Gainera, klasifikazio orokorrean laugarren atleta izan zen Arraiza.

Behobia-Donostia lasterketan emakumeen parte-hartzea handitzen doa urtez urte; berbarako aurtengoa korrikalarien % 23,41 emakumeak izan dira. ◀

Badugu formula

**EUSKARA**

gehiago erabiltzeko

Jakin nahi baduzu zein den,  
etorri abenduaren 3an Areetak Karpara

argi  
hizki  
ak<sup>2017</sup>

「 a 」


ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO  
TESTU LABURREN VI. LEHIAKETA

**Erandion, azaroaren 20tik abenduaren 1era**

# ERAKUSKETA

JOSU MURUETA KULTUR ETXEAN (Astrabudua)

Astegunetan, 09:00-14:00 eta 16:00-21:00



INFORMAZIO GEHIAGO:

[www.argihizkiak.eus](http://www.argihizkiak.eus)



# hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...  
**eta abantaila askoz goza egizu!**

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

## Non da? lehiaketa



**Producciones Serranoren ekimenez, Ben Reel artistaren kontzertuaz gozatzeko 3 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu**

Musiketan zikloaren barruan eskainiko den kontzertuko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, azaroaren 28a (martitzena) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: [administrazioa@hiruka.eus](mailto:administrazioa@hiruka.eus) edo 944 911 337.

## Azaroko saria

Udagoien koloretako bufanda eta txanoa



HIRUKAzale bati esker, sari hori zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean. Zozketan parte hartzeko, bidali azaroaren 30a (eguna) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: [administrazioa@hiruka.eus](mailto:administrazioa@hiruka.eus) edo 944 911 337.

## Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bidez), edo bestela:

**Webgunean:** [hiruka.eus/harpidetza/laguna/](http://hiruka.eus/harpidetza/laguna/)  
**Idatziz:** [hirukakoop@hiruka.eus](mailto:hirukakoop@hiruka.eus)  
**Deituz:** 944 911 337 • 688 812 368

**HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO**

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikizitatea helarazteko. Bestelako erabilerek erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus)

## Sudokua

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

			7					6
	4					8		
1	8				2		7	
	1	9		7				
			9	5				2
						6		3
7	5		3					9
			4	6			1	

## Soluzioa

2	3	1	5	6	9	4	8	3	7
6	4	7	1	8	3	9	5	7	2
3	8	9	2	7	5	1	6	4	8
2	9	3	5	1	6	4	7	8	5
8	5	4	9	7	2	7	6	1	3
1	6	7	4	3	8	2	6	5	9
4	7	6	2	5	9	3	8	1	5
5	2	8	3	6	1	7	4	9	6
9	3	1	8	7	4	2	5	7	8

## + Guardiako farmaziak, hilaren 23tik 29ra

### Barrika

**ZULOAGA.** Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716. Domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

### Berango

**EGUIA.** Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00; eguaztenez, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

### Erandio

**ARRIOLA.** Obieta, 40. ALTZAGA. 944 670 022. Zapatuan eta domekan, 09:00-22:00.

**ARRUTIA.** Obieta kalea, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00.

**DÍAZ.** Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

**GASTEARENA.** Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuan, 09:00-14:00.

**TEIJELO.** J. A. Agirre pl., 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

### Getxo

**ALZOLA.** Arene, 4. ALGORTA. 944 306 570. Astegunetan, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte; zapatuan, 10:00-13:30 eta 22:00-09:00; domekan, 22:00etatik astelehenerako 09:00ak arte.

**ARISTEGUI.** Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

**EZQUERRA.** Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Eguna, 09:00-22:00.

**JIMÉNEZ.** Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Eguna, 09:00-22:00.

**LÓPEZ-LINARES.** Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

**MORÓN.** Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

**SARRIA.** Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

**ARRIOLA.** Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan, 09:00-22:00.

**BAYANO.** Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

**ELLACURIA.** Andrés Larrazabal, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

**ABERASTURI.** Maidagan, 21. GETXO. 944 300 796. Zapatuan, 09:00-22:00.

**ANDRACA.** Maidagan, 61. GETXO. 944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

**GALARZA.** Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan eta domekan, 09:00-22:00.

**MONASTERIO.** Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan, 09:00-22:00.

**NÚÑEZ.** Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

**HORMAECHEA.** Neguriko etorb., 15. NEGURI. 944 911 557. Domekan, 09:00-13:30.

### Gorliz

**ABURTO.** Itsasbide kalea, 5. 946 775 452. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

**ROMERO.** Itsasbide, 20. 946 128 941. Zapatuan, 09:00-13:30.

### Leioa

**NARDIZ.** Mendibile, 1. Leioa. 944 800 484. Martitzenez, 09:00-22:00.

**TIEMBLO.** Sabino Arana, 89. 944 803 191. Barikuan eta astelehenean, 09:00-22:00.

**ORTEGA.** Artatza kalea, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

**ONA.** Maiatzaren Bata kalea, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan eta domekan, 09:00-22:00.

**SAN ANDRÉS.** Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Eguna, 09:00-22:00.

### Lemoiz

**GONZALEZ.** Portubidea kalea, 7. ARMINTZA. 946 879 341. Zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

### Plentzia

**ARAMBURU.** Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00.

### Sopela

**DOLARA.** Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan, 09:00-22:00; martitzenez, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

**ITURBE.** Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00; astelehenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

**ERAZO.** Loiola Ander Deuna, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00; barikuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz; zapatuan, 09:00-13:30.

**ZUMÁRRAGA.** Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00; egunean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

### Urduliz


**PARAMO.** Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00.

Sakonean

# Beldurraren

**Karmeli sasoi hartako** eskolaren tamainak atentziora ematen zion. Hain zen handia, ezen inurri baten itxura hartzen baitzuen egurrezko besaulki deserosoan. Sarritan aurreko aulkiaren ertzari helduta entzuten zuen irakasleen matraka.

JUAN LUIS MUGERTZA UNANUE



# askatasuna

**E**ta luzera! Huraxe zen luzera, eta ez gaurko umeen eskolena! Mutur batetik bestera go-rengo futbol-zelaiaren bestekoa ez bazen, hortxe-hortxe ibiliko zen. Karmeli, behintzat, hori iruditzen zitzaion aurreko lerroetara irakasleak aginduta ikasleen aurretik igarotzen zenean, eta irriñoen kilika maltzurra entzuten zenean. Irakasleak bere lepotik barrerik ez egiteko esaten zien, baina ikaskideek ez zuten kasurik egiten: «Nola egiten du astoak?».

Atsedendietan bakarrik izan ohi zuten aukera gutukoaren irribarrea ikusteko. Orduan, eskolatik hurbil zegoen kioskora joaten zen, eta han bere begirada inozoa litxarrerietan pautatu, eta... «Horrelako pakete bi, eta... horrelako bat», esaten zion gurpil-aulki batean esku gainen zainek eskolako mapetako ibaien itxura hartzen zuten Tomasi. Honek paper zatia eta arkatza hartu eta... «Pezeta bat eta berrogei zentimo», esaten zion gozo-gozo emandako erregalizen antzera. Poltsikoaren sakonean eskutxoak murgildu, eta arrantzan aritutakoak bezala txanpon txikiak atera, eta... «Hartu!», esaten zion eskolara bueltatzeko inolako gogorik ez zuelarik.

Tomasekin izandako elkarrizketak zirela eta, behin baino gehiagotan, berandu heltzen zen eskolara, eta irakasleak errieta egiten zion: «Izan dadila azken eguna!». Hala ere, Karmeli berdin zion irakasleak esandakoak. Izan ere, unerik politenak eta bakarrak Tomasekin pasatzen zituen, eta horrelakoak aprobetxatu behar.

Behin, Tomasek aurreko egunetan ez bezala ikusi zuten Karmel, eta momentuan jabetu zen goibel zegoela, nahiz eta negar malkoak begien barruan ezkutatzeko ahaleginak egin: «Eskolakoek jo egin zaituzte, ezta?». Karmelek, orduan, ustel asko izan ohi zituen, baina, beldurraren ikasgaia eta ikaskideen aurrean barregarri gelditzeko lotsarena berehala barneratu zituen, nota bikainez, gainera: «Ez daki irakurtzen!», «Ez daki idazten!», «Ez daki ezer».

Etengabeko eskola-jazarpenak kezkatzen zuten, eta nor edo nori laguntza eskatu behar izan zion. Badaezpada, tutorearengana joan zen laguntza eske, baina, horrek emandako erantzunak ez zion ezertarako lagundu: «Ikasi beharko duzu beldurra soinean bizi izaten». Tutoreak esandakoa ez zuten ulertu; bera oso lasai bizi izaten zen, auzoan lagunekin; baina, eskolako jasanezina zen. Gainera, irakasleek ez zuten inolako ahaleginik egiten integratzeko. Bere ustez, irakasleek ere beldurra zieten eskolako ikasle askori; bereziki, Franciscoren taldekoei, beraiek agintzen baitzuten eskolan, eta eskolatik kanpo.

Inoiz baino gehiagotan eskolarena bertan behera uztea pentsatu izan zuten, baina amamak esandakoa, «Ikasi behar duzu, Karmel», ezin zuten burutik kendu, eta horrek indarra ematen zion aurrera egiteko.

Tarte batean, nahiko lasai ibili zen. Ez zuten nabarmentzeko moduko istilurik izan. Hori bai, eskolako patioan bakarrik ibiltzea gustatzen zitzaion, burdina-hesitik hurbil, eta gainontzeko ikaskideengandik urrun.

Behin, zuhaitz baten ondoan zegoela, kardantxilo bat ikusi zuten. Momentuan konturatu zen eskumako hegalean minez zegoela, eta ezin zuela hegan egin. Eskuetan hartu ostean, badaezpada, inguruan habia topatzen ahalegindu zen, baina ez zuten inon ezer ikusi, eta etxera eroatea pentsatu zuten: «Nik sendatuko zaitut». Kardantxiloa berari begira gelditu zen esandakoa ulertu bazion bezala, eta esku ahurrean kukubilkatu zen goxo-goxo.

Harrez geroztik, kartoizko kutxatxo batean egon ohi zen, eta Karmelen ohe ondoan egiten zuten lo. Denborak aurrera egin zuten, eta amamak izena ipintzeko esan zion. Etxeko katuari *Txarli* jarri zion Karmelek, baina txoriari ez zekien zer zelako izena jar diezaiokeen. Azkenean, amamak hartu zuten ardura, eta *Txipilin* esaten zioten.

Beraien arteko harremana gero eta estuagoa izan zen. Desiratzen egoten zen eskolako arrastiko saioak amaitzeko, eta *Txipilineg*az ondoko lorategietan buelta bat emateko. Askotan zuhaitz baten azpian jesartzen ziren, eta *Txipilinek* kutxako zuloxoetatik leku guztietara begiratzen zuten; bere lagunakaz egoteko gogoia zuela ematen zuten. Sarri, eskolako kontuez berba egiten zion *Txipilini*, eta beldurraren gainean

ere berba egiten zion. Batzuetan ematen zuten esandakoa ulertu egiten zuela, txio-txioka aritzen baitzen.

*Txipilin* poliki-poliki osatzen joan zen, eta logela barruan lehenengo hegalaldi laburrak egin zituen: lurretik leihora, leihotik ohera. Eta behin baino gehiagotan, logelako atea zabaltzean lepo gainean ipintzen zitzaion: «Arrasti on, *Txipilin!* Zer moduz pasatu duzu eguna? Nirekin gogoratu zara?».

Azkenean, askatzeko eguna heldu zen. *Txipilin* horretaz jabeturik-edo, inoiz baino urduriago zegoen kutxan: «Lasai, ez estutu».

Karmelek sentsazio gazi-gozoak izan zituen. Zer edo zer txarrik susmatzen zuten. Bat-batean, Francisco agertu zen, betiko moduan harro. Danieli hurbildu, eta kaiolari begiratu zion: «Zer daroak hor?»

Karmelek ahaleginak egin zituen *Txipilin* ezkutatzeko, baina alperrik. Franciscok ahaleginak egin zituen txoria erosteko, edo tiragomaz trukatu. Baina Karmelek ez zuten dirurik gura, ezta tiragomarik ere. Askatasuna nahi zuten.

Franciscok beti lortzen zuten nahi zuena: modu onean ez bazen, txarrean. Gainera, ezin izan zuten onartu Karmelen zakarkeria, eta esku biak erabili zituen lepotik heltzeko, gogor astintzeko. Karmel arnasestuka hasi zen, aurpegia gorri-gorri ipini zitzaion; beldurra ate joka zegoen berrira, baina ez zuten aurre egiteko modurik ikusi. Hori bai, kutxari heldu zion indarrez, eta ez zuten inondik inora askatzerik nahi. Pauso bat eman zuten atzera, eta lurrera erori egin zen, eta hantxe zuten Francisco tente, berari begira, amorraturik: «Kaiola emateko esan dizut!», oihuka. Baina Karmelek inoiz baino indar handiagoz heldu zion kutxari. Karmelen sabelean beldurrak bere habia eduki arren, amorrak ere bere kimua egin zuten. Amamak aitaren gainean esandakoa buruan zuela «Inor gutxik kikiltzen zuten», zutunik ipini zen, eta aurrez-aurrez egon ziren, berba egin barik: «Zer! Borroka gura dok, ala?».

Karmel korrika hasi zen. Franciscok atzetik jarraitu zion, eta hanketatik heldu. Biak lurrera jausi ziren: «Muturra txikitzea gura dok?», gorrotoz, Franciscok. Bat-batean, Karmeli kutxaren atetxoa zabaltzea bururatu zitzaion, eta, zalantzatan egon ostean, kardantxiloak oso gora egin zuten hegan. Karmel begira gelditu zitzaion, txori bat hegan inoiz ikusi ez balu bezala, eta irribarrea margotu zitzaion ezpainetan: «Hireak egin du!».


Franciscok egundoko kolpea eman zion eskumako begian. Min handia hartu zuten, eta ezin izan zuten ezer ikusi. Hala ere, tente jartzea lortu zuten, eta Franciscoren gainean egin zuten salto; ukabila amorrutxi, eta zartako itzela eman zion sudurrean. Francisco mutu gelditu zen, pasa-pasa eginda, eta beldurrez, sudurretik odola zeriola ikustean. Karmelek ere begiratu zion, harriduta, baina berarena ez zen beldurra izan, harridura baino. Beldurrak Karmelen gorputzetik alde egin zuten, kardantxiloak kaiolatik legez. ◀



**Juan Luis Mugertza Unanue**

(Elgoibar, 1954)

**Berangon bizi da aspaldidanik, jaiotzez Elgoibartarra bada ere. Euskal Filologian lizentziaduna eta bigarren hezkuntzako irakasle da. Gazte-literaturan idatzi ditu liburu gehienak, barbarako *Zer du aitona?* (Ibaizabal, 2010) *Sorgin zibertxakurra* (Ibaizabal, 2007), *Lunaren goiztiri* (Ataramiñe), *Kilkerra eztarrian* (Ibaizabal, 2006), *Mundiala Mundua!* (Desclee de Brouwer), *Astoari konfiturak* (Aizkorri, 2002), *Aruma, urrezko oihanean* (Desclée, 2000) eta *Lehenengo aldiz* (Desclée, 1999).**



Mundukatuak

Ana Fernández Salas Terrassakoa

## «Terrassak herri-kultura eta folklore biziak dauzka»

Ana Fernández Salasek behin-behinean ikusten du bere burua Uribe Kostan. Terrassako psikologoa 2013ko udan heldu zen Algortara, bere alabaren aitaren herrira.

Bere ustez, eskualdea «oso polita, eroso eta lasaia» da; baina, halere, «ahal dudanean Mediterraneo aldera bueltatzea pentsatuta daukat. Eguzki-ordu gehiago eta bero handiago izatearen hutsunea sumatzen dut», aitortu du Fernándezek. Izan ere, Uribe Kostara oporretan etorri zen aldietan arraroa iruditzen zitzaion euritakodendak egotea: «baina, udazken-hilabete batean haize-ufadek hiru euritako apurtu zizkidaten, eta ulertu nuen. Orain, haizeak jo eta euria eginez gero, busti egin eta etxean aldatzen naiz, ez dago besterik!», azaldu du. Oraindino ulertzen ez duena da jendea tabernen kanpoaldean egotea, hotza eta euri artean, olanapean bada ere. Terrassak

herri-kultura eta folklore biziak dauzka. Adibidez jende-gazteluak osatzen dituzte, Vallès Occidental eskualdeko hiriburu horretan *colla casteller*a bi dituzte: Els Minyons eta Els Castellers de Terrassa. Horrez gainera, erraldioen

**“Eguzki-ordu gehiago eta bero handiago falta ditudala sumatzen dut Uribe Kostan”**

eta buruhandien elkarteak, dantzataldeak eta abarrak dituzte. Musikari dagokionez, La Jazz Cava jazzgunea da ezagutu beharreko lekua, batez ere martxoan bisita eginez gero, urtero-urtero jazzaldia antolatzen dutelako garai horretan. Bestalde, zenbait antzerki-talde dituzte unibertsitate-herrian, bertako institutu

sortutakoak. Maiatzean, bertako azoka modernoa ikus daiteke, Terrassara txangoa eginez gero. Garai horretako giroa hartzen du hiriak eta eraikin modernistak bisita daitezke. Haietako bat da algortarraren eraikin gustukoen: Masia Freixa. 1896an eraiki zuten irundegi izateko, baina, hainbat urtetan Udalaren musika-kontserbatorioa izan da. Fernándezen beste gomendio batzuk dira zientzia- eta teknika-museoa, Alegre de Sagrera museo-etxea, Vallparadís parkea eta Guinness errekorren liburuan agertzen den Almirall industria-tximinia. Modu berean, bertako gastronomia dastatzeko aholkatu du, batez ere, artisau-produktuak.

Gabonetan, oster, ohikoa da *Quintoan* jokatzeko. Bingoaren moduko joko horretan, *loro* deritzen pertsonak esaera zaharren bidez kantatzen ditu atera diren zenbakiak. Kartoiak eskuriz bete ohi dira. ◀

NOR DA

### Nongoa

Terrassakoa.

### Adina

50 urte.

### Zertan dihardu

Psikologia-arloan behar egiten du; umeei masajeak ematen eta umeen psikomotritzitatea lantzen, batez ere.


### Ikasketak

Psikologian lizentziaduna, graduondokoa egin zuen Aholkularitza Psikopedagogikoan.

### Noiztik Euskal Herrian?

Orain dela lau urte etorri zen Algortara, uda baliatuta, Valentzian 9 urtez bizi osten..

NONGOA DA



### Lurraldea

Herialde Katalanak.

### Azalera

70.520 km².

### Hiria

Terrassa (Vallès Occidental, Bartzelona).

### Biztanleria

215.121 biztanle.

### Hizkuntzak

Katalana da bertoko hizkuntza (Herialde Katalanetan, 11 milioi hiztun dira) eta koofiziala da gaztelaniagaz eta aranesagaz (Vall d'Aran eskualdean) batera.

Independentzia aldarrikatuz gero, hiru hizkuntzek koofizialak izaten jarraituko lukete, burujabetzaren aldekoen arabera. Biztanleen % 36ak katalana du ohiko hizkuntza, % 46ak gaztelania, % 12ak biak, % 0,03ak aranesa eta % 6ak beste batzuk.

### Dirua

Euroa.

Erakunde laguntzaileak:



**Bizkaia**  
 foru aldundia  
 diputación foral  
 Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua